



BARREN
TOKIKOM

Zibersegurtasuna proban

Hodei Lopez



13 urterekin iritsi zen Marcos Vinicius Da Silva Euskal Herrira. Bi urte aurretik etorri zen bere ama, eta bera amamarekin bitzen geratu zen Brasilen. Amamak sukaldatzen zuen etxean, eta Marcos adi-adi egoten zen beti amamari begira. Horrela piztu zitzaion sukalderako zaletasuna. Euskal Herrira iritsi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu zuenean sukaldaritza ikasketak egitea erabaki zuen. Abuztuan Gorbea jatetxea zabalduko du, bere negozio propioa. Ilusio handiz eta lanerako gogoz iritsi da Elgoibarrera.



“Ilusioz eta lanerako gogoz nator”

MARCOS VINICIUS DA SILVA, Gorbea tabernakoa

■ Abuztuan zabalduko duzu Gorbea jatetxea. Zer eskainiko duzu?

Sasioan sasoiko produktuak eskainiko ditut, naturak ematen diguna aprobetxatzea da sukaldaritzan egokiena. Euskal sukaldaritza tradizionala landuko dugu hemen, horixe da ikasi dudana eta horixe eskainiko dut. Eguneko menuak, asteburuetak menu bereziak eta karta egongo da aukeran, eta ospakizun berezietarako menu itxiak ere eskainiko ditugu, bataio, jaunartze edo zorion-ospakizunetarako, adibidez. Herriko jaietarako ere menu bereziak prestatuko ditugu. Nire asmoa ez da ogitartekoak edo plater konbinatuak eskaintzea. Tankera horretako establezimenduak badaude Elgoibarren, eta nik zerbait desberdina eskaini nahi dut. Alor horretan herrian hutsunea dagoela iruditzen zait, eta zulo hori bete nahiko nuke.

■ Nondik datorkizu sukaldaritzarako zaletasuna?

Brasilen amonarekin bizi nintzen, eta sukaldatzen aritzen zenean beti egoten nintzen berari begira. 13 urterekin iritsi nintzen Euskal Herrira. Gure etxean amak sukaldatzen zuen, baina kanpoan egiten

zuen lan. Egun batean bere zain nengoen bazkaltzeko, baina iristen ez zela ikusita, neu hasi nintzen sukaldean. Hura izan zen nire lehenengo esperientzia. DBHko ikasketak amaitu nituenean argi ikusi nuen sukaldaritza ikasi nahi nuela. Donostiako Ostalaritza Eskolan egin nituen ikasketak, eta ikasten ari nintzela hasi nintzen lanean Jose Mari Egaña sukaldariarekin. Bera izan da nire benetako maisua. Madrilen eduki du jatetxe bat, Sevillan ere bai eta Mitxelín izarren bat ere badauka. Debako Bordatxo jatetxea hartu zuen duela urte batzuk eta han jardun izan naiz lanean azken urteotan. Hango espezialitatea parrila da, eta hortan espezializatu naiz bereziki, baina oro har, euskal sukaldaritza egiten dut.

■ Pandemia sasoi bete zabalduko duzu jatetxea.

Bai, baina pandemia hau pasatuko den itxaropena daukat. Ausarta izango banaiz, orain izan behar dut. 23 urte ditut, gaztea naiz, eta orain da momentua. Ilusioz eta lanerako gogo handiz nator. Betidanik izan dut nire negozioa zabaltzeko gogoia, eta saiatu egin behar dut. Gaizki irteten bada, ba beste zerbait bilatu beharko dut, baina esperientzia horretatik ere gauza asko ikasiko ditut, seguru.

ABUZTUAREN ERDI ALDERAKO ZABALIK!

Astelehenetik ostiralera eguneko menua eta karta. Asteburuetan euskal platerretan oinarritutako sukaldaritza tradizionala.

Santa Ana kalea, 10, behea

688 814 698



Bisita gaitzazu!

ALEX SEGADÉ

Ikaslea



Bigarren uda

Oraingoko honi bosgarren olatua deitu diote. Zer joera gurea olatuak zenbatzekoa!. Imaginatzen dut herritarrak gehiago hunkiarazteko erabiliko dutela komunikabideek. Baina zer demontre inporta zaigu bosgarrena, hamargarrena edo hamar milagarrena den! Birusa etorri denetik ez da desagertu. Beraz, agian ez da zuzena olatuez hitz egitea, egotekotan bakarra egon delako. Olatuak gora, olatuak behera... kaka zaharra guztia. Gainera, olatu berri honi gazteen olatua esaten diote. Gaztelaraz esaten den bezala: *tócate los...* Akaso lehenengo edo bigarren olatuei helduen olatua deitzen genien? Ez, ezta? Orduan, aski da. Ez da gure errua txertatuta ez egotea. Kontu gehiagorekin ibiltzea bai

dago gure esku, noski, baina bestea ez.

Ez daukat zalantzarik gazteria txertatuta ez egotea dela honen arrazoia. Aurteko urteko maila berean ari gara sozializatzen, ez gehiago ez gutxiago. Gauza da, aurten adineko jendea txertatuta dagoela eta gazteok ez, eta ematen dut kontrolik gabe ari garela. Berri ona izan da gazteak txertatzen hasi izana, bai hemen, eta baita estatuan ere.

Aurtengo uda iazkoaren antzekoa izango da, herriko festarik gabe, baina libre mugitzeko aukerarekin. Atzerrira joan gaitzke, ez dut gogoratzen iaz kanpora joateko aukera bageneukan ala ez. Hala eta guztiz ere, egoera ez da asko aldatu nire ustez. Aldaketa gutxi iruditzen zait urte oso bat pasatu izateko.

“Ez da gure errua txertatuta ez egotea.

Kontu gehiagorekin ibiltzea bai dago gure esku, baina bestea ez”



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ UDAKO MOBILIZAZIOAK

Azken hilabeteetan Levanteko, Andaluziako eta Galiziko espetxeetatik euskal presoak atera eta Madrildik gorako espetxeetan kokatuak daude denak gaur egun. Frantziako estatuan preso gehienak Mont de Marsan eta Lannemezaneko espetxeetan daude. Halaber, urte luzez Espainiako estatuko espetxeetan euskal presoak kateatzeko erabili den lehen gradoa desaktibatuta egin da. Gauzak horrela, hurrengo fase honetan euskal presoak Euskal Herriko espetxeetara ekarri behar dira eta, baita ere, ibilbide juridiko-penitentziarioa normaltasunez egin: gradu progresioak lortzea, baimeak eta permisoak... Beste erronka batzuk ere hor daude: gaixotasun larriak

pairatzen dituzten presoak (19), 70 urte gorakoak (9), legearen aplikazioarekin etxean egon beharko luketenak... Finen, euskal preso guztien etxeratzearekin bukatuko duen fasea.

Orain arte lortutako adostasun politiko, sindikal, sozialak eta kaleko mobilizazioak funtsezkoak izan dira 8 urte luzez paralizaturik egon den egoera mugiarazteko. Eta aurrera begira ere horrela beharko du. Ildo honetan, uda honetan izango diren mobilizazioen berri eman nahi dugu. Uztailaren 24an bizikleta martxa izango da Zumaiatik Donostiara. Uztailaren 30an, azken ostirala, elkarretaratzea izango da Kalegoen plazan, 20:00etan. Abuztuaren 21ean mobilizazio irudimentsua egingo

da Donostian. Bukatzeko, abuztuaren 27an elkarretaratzea egingo da Maalako parkean, 20:00etan. Animatu eta parte hartu!

Sare Elgoibar

▶ OHARRA

Esku artean duzuen BARRENA uztailko azkena da. Covid-19aren ondorioz aurten ez da San Bartolome jairik ospatuko, eta beraz, BARRENEK ez du jaien inguruko ale berezirik kaleratuko abuztuan. Irailaren 3an jasoko duzue ikasturte berriko lehenengo. Ordura arte, zaindu zaitezte eta ondo pasa oporetan!

BARREN



II. URTEURRENA

Maria Asun Otaegi Iriarte

2019ko uztailaren 22an hil zen, 67 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.

Familia



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA


943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

**Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**



Eusebia Lizundia Kaltzakorta

2021eko uztailaren 19an hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Luisa Urrutia Etxabe

"Martiñaundi"

2021eko uztailaren 17an hil zen, 86 urte zituela.
Irailean egingo dute haren aldeko meza,
baina data zehaztu gabe dago oraindik.

*Eskerrik asko, amama, zure ondoan,
bizitza zoragarria izan dugulako.
Eskerrik asko, amama,
zure ondoan geundenean bizitza poztu zenigulako.
Beti egongo zara gure ondoan.
Zure betiko irribarre politarekin, gu zaintzen eta alaitzen.
Beti izan zara gure bizitzaren lorea eta
gure lore polita izaten jarraituko duzu.
Askok maite zaitugu.*

Etxekoak




Eskertzak eta urteurrenak
943 743 704 / 688 769 657
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus




I. URTEURRENA

Marga San Millan Egaña

2020ko abuztuaren 7an
hil zen, 72 urte zituela.

Gorriak gustatzen zaizkit larrosak. Bizitzak ez zaitu ondo zaindu eta zigortu egin zaitu zure semeak hazten jardun zarenean. Zoriontsu izatea lortu dugu, baina, eta zure ilobak hazten lagundu duzu. Oso zoriontsuak izan gara larrosa artean eta naturaz inguratuta. Gauetan zuhaitzei begira egoten ginenean, izarrei begiratu eta 'elkartuko dira' esaten genuen. Ba begira, Marga, zauden lekuan zaudela, ikusi: batu dira. Urte gehiago bizi behar genuen, eta ez da justua izan. Zure falta somatzen dut. Zure katua eta nire txakur Lur oso ondo konpontzen ziren. Maite zintudan, Marga, eta beti maiteko zaitut. Agur, eta ikusi arte. Zaude nire zain!

Bere semeak, Gaizka eta Aitor eta
bilobak Txabi, Victor, Guillen, Ethan eta Alex.

Elgoibarko 36 taberna eta jatetxek Aizu! elkartea sortu dute, beraien eskaerak elkarrekin defendatzeko

Covid-19aren pandemiak ostalaritzaren sektorean eragin dituen kalteei aurre egiteko batzea erabaki dute Elgoibarko ostalariak, eta Aizu! elkartea sortu dute, euren beharrak elkarrekin defendatzeko. Konfinamenduak, ordutegi eta edukiera murrizketek eta herriak eremu gorrian sartzean itxi behar izanako eraman dituzten ostalariak batzera, eta herriko establezimendu gehienak sartu dira elkartean. King-Kong tabernako Manu Rey izendatu dute lehendakari, eta esan duenez, "azkenean" bukatu da herriko goiko aldeko eta beheko aldeko ostalarien arteko bereizketa eta aurrerantzean denek batera egingo dute indarra, euren beharren alde: "Bakoitzak bere aldetik bakarka baino indar handiagoa egingo dugu taldean", esan du. Horrez gain, prezioen



politika berdindu nahi dute, eta egoerak ahalbidetzen duenean, kontzertu edota bestelako ekimenak antolatzeke asmoa erakutsi dute, ostalaritzari bultzada emateko. Reyk emandako datuen arabera, Elgoibarren 46 bat ostalaritza establezimendu daude, eta momentuz,

36 batu dira elkartera. Hasierako etapa honetan Txarridunako Imanol Urain (lehendakari-ordea), Gabiko Eneritz Buruntza (diruzaina), eta Tantanako Leire Urbiola eta Celia tabernako Celia Teixeira (bokalak) egongo dira zuzendaritza taldean Manu Rey presidentearekin batera.

Debarrena eskualdea ekonomikoki suspertzeko ponentzia bultzatu dute EAJ eta PSE-EEk Legebiltzarrean

Eskualdeko adierazle ekonomikoak suspertzeko jardura espezifikoak behar direla uste dute EAJ eta PSE-EE alderdiek, eta horiek lantzeko foro bat sortuko dute. Hala, bi alderdietako talde-parlamentarioek Legez besteko Proposamen bat aurkeztu dute Eusko Legebiltzarreko Ganberaren erregistroan, Debarrenako eskualdea suspertzeko ponentzia bultzatzeko. Foro horrek Debarrena eskualdeak dituen behar ekonomikoaren inguruan hausnarketa sakona egiteko balioko duela argitu dute, Covid-19 krisiaren ondoren industria-ehuna galtzea saihesteko eta haren birsorkuntza ekonomikoa sustatzeko. Bi talde politikoaren ustez, eskualdeko adierazle ekonomikoak suspertzeko jardura espezifikoak behar dira Debarrenean. Foroaren sustatzaileek hainbat erakunde gonbidatu dituzte parte hartzera: Eusko Jaurla-



ritz, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia, eta Eibar, Sorluze, Elgoibar, Mendaro, Deba, Mutriku, Mallabia eta Ermuko udalak. Eta baita bestelako eragileek ere, sindikalistek, enpresariak, ekonomialariek eta besteak beste. EAJ-PNVko Irune Berasaluze mendararra eta Eibarko Eneko Andueza bozeramaile sozialista izango dira bi alderdietako ordezkariak foroan.

Foroaren eraketa hurrengo bilkura-aldean onartuko dute (irailean) eta haren funtzionamenduak ezkerreko, Meatzaldeko eta Oarsoaldeko eskualdeetan eta Aiarako eskualdean eta Urduña, Orozko, Arrankudiaga eta Arakaldo udalerrietan zentratutako ponentzien adibideari jarraituko dio. Ponentzia horiek aurreko legegintzaldian eta legegintzaldi honetan garatu dituzte Ganberan.

Mintxetako berdegunea urte osoan irekita mantentzeko proposamenak ez duela aurrera egin jakinarazi du EH Bilduk

Udal Kirol Patronatuaren azken bileran Mintxetako berdegunea urte osoan ez irekitzea erabaki dute. “Elgoibarko PSE-EEK, kontrako botoarekin, EAJren kontrako jarrera nabarmenari babesia eman dio eta proiektua ez gauzatzea erabaki dute”, adierazi du Elgoibarko EH Bilduk. Berdegunea urte osoan zabaltzeko proposamena ez dela eurena zehaztu dute, herritar talde batena baizik, baina hala ere, atzera bota dutela azaldu du EHBilduk. Gaineratu dute, bileran ezin izan zutela aurkeztu Udal Gobernuak zehaztutako zailtasunei kontra egiten dien dokumentua: “Proiektuarekin ez jarraitzeko jarri duten aitzakia bakarra, bai, aitzakia, urtero mantentze gastuak sortuko dituela da. Hasiko al gara izendatzen udalean mantenu gastua duten proiektu ezberdinak? Lasai, ez genuke berehala bukatuko eta ez gara horretan sartuko, baina bai, asko dira urtero Udalak dituen mantenu gastuak bere instalakuntzetan”. EHBilduten ustez arazoa da batzuek instalazioen pribatizazioa normalizat jotzen dutela:



“Benetako arazoa da batzuentzat instalakuntzak pribatizatzea normala dela, denon diruarekin ordaindutako ekipamenduak gero kuota bat ordaintzeko gaitasuna daukanak soilik erabiltzeko bideratzen dira, eta hori ez da herritarrengan pentsatzea, hori ez da Elgoibar integratzaile bat eraikitzeko bidea”. Hor-taz, legegaldi honetan berdegunea urte osoan irekita ikusteko esperantzarik ez

duela dio EH Bilduk, baina hala izan dadin lan egingo dutela jaso dute. “Orain ez da posible izan, baina nori daki, beste gai batzuetan ere Udal Gobernuak bere iritzia aldatu behar izan du herritarrek mugitu direnean”.

Azkenik, Elkarrekin-Podemosi esker-rak eman dizkiote eurek aurkeztutako proposamenaren aldeko botoa emate-agatik.

Aurten ere kale ZAINDU ZAITEZTE
nava@euskalnet.net

NAVVA
INPRIMATEGIA

ASESORIA GOAR

**KONTABILITATEA
 AHOLKULARITZA FISKALA
 ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129

197.000 euro erabiliko ditu Elgoibarko Udalak, partaidetza bidezko aurrekontuetan boto gehien jaso dituzten bost proiektuak gauzatzeko

Elgoibarko Udalak 197.000 euroko diru partida bideratuko du partaidetza bidezko aurrekontuetan elgoibartarrek euren botoekin aukeratu tako bost proiektuak egiteko. 2021ean herritarren proiektuetarako bideratutako hasierako aurrekontua 200.000 eurokoa zen, baina horietatik 20.000 euro Elgoibarko eremu sakabanatuekin lotutako proiektuetarako jaso ziren eta diru hori, azkenik, auzo-bideak asfaltatzeko eta egokitzeke eta arbolak inautesteko erabiliko dela jakitera eman du Udalak. Azaldutako bost proiektuek hasierako aurrekontua gainditzen duten arren, Udalak gauzatu egingo ditu, udal-aurrekontu arruntetik datorren 17.900 euroko partidarekin osatuz.

Elgoibarko Udalak hirugarren urtez jarri ditu martxan partaidetza bidezko aurrekontuak. Aurreko bi ekitaldietan bezala, 2021eko aurrekontu parte-hartzaileen prozesua ere bi fasetan egin da: proposamenak jasotzeko fasea, azaroan, eta lehenespen fasea, apirilean. Bi faseen artean, guztira 572 elgoibartarrek hartu dute parte, eta 231 proposamen jaso dituzte. Aurkeztu ziren proposamenek iragazki tekniko bat gainditu zuten bigarren fasera igarotzeko, eta hamasei proiektuk lortu zuten bigarren fasera igarotzea; eta, horien artean herritarrek bost lehenetsi dituzte euren botoen bidez.

Prozesu honi lotuta, ondorengoak dira, besteak beste, aurreko bi edizioetan herritarrekin adostuta gauzatu dituzte proiektuetako batzuk: Bolatikoko parkearen eta Bernardo Ezenarro kalearen berrurbanizazioak, Aizkorri eta Urazandi lotzen dituen pasealekuko hobekuntzak, Lekueder eta eliza arteko galtzada-harriak kendu eta aldatzea edo "Karakoleko" zubia konpon-tzea.



Bost proiektuak

- Bide publikoan tratamendu ez-labaingarriak aplikatzea: 40.000 euro
- Mendi ibilbideak sortzea eta hobetzea: 18.500 euro
- Skate-parkeko ingurumena berritzea harmailak sortuta eta tirolina jarrita, besteak beste: 60.000 euro
- Udalerriko eserlekuak eta lorategiak berritzea: 18.500 euro
- Anbulatorioaren eta kiroldegiaren arteko egurrezko zubian zoladura aldatzea: 60.000 euro

Debarreneko kaleetatik 180 txakur eta katu baino gehiago jaso ditu Mankomunitateak

Hondakin bilketa eta kale garbiketa bezalako zerbitzu ezagunez gain, eskualdeko kaleetan abandonatutako etxeko animaliak, txakurrak eta katuak batez ere, biltzeko eta artatzeko zerbitzua ere badu Debarreneko Mankomunitateak. Albaitari arduradun batek eta animalien hezitzaile batek kalean jasotako animaliak artatzen dituzte Elgeta bidetako instalazioetan, eta eman dituzten datuen arabera, 180 txakur eta katu baino gehiago artatu zituzten 2020an. Zehaztu dutenez, ia 32 katu eta 100 txakur artatu zituzten txakurtegiak. Katu guztiak antzutu egin zituztena. "Praktika horren bidez, gure kaleetan katuak ugaritzea saihesten dugu". Txakurrei dagokienez, 80 jabeei itzuli zitzaizkien, beste 19 adopzioan eman zituzten eta azken bati



eutanasia errukiorra aplikatu behar izan zioten. "Mankomunitateak eskerrak eman nahi dizkie txakur horiek adoptatzeko eta animalia horiei bizitza berri bat emateko sentsibilitatea erakusten duten familiei. Nolanahi ere, azpimarratu nahi da animaliak abandonatzeak

ondorio legalak dituela eta desagerrarazi beharreko praktika bat dela".

Mankomunitatearen animalien ongizate zerbitzua Marcan Huella elkartearekin lankidetzan aritzen da, eta Mankomunitateak goraiatu egin du elkarteak burutzen duen lana.

Elgoibarko 42 tabernak jasoko dute Udalak emandako 1.200 euroko dirulaguntza zuzena

Covid-19ak izandako eragina arintzeko sustapen plana jarri zuen martxan Elgoibarko Udalak 2020ko apirilean, eta hilabete hauetan ostalari eta merkatariekin elkarlanean aritu da Udalak, dirulaguntza lerro desberdinak adosteko. Elkarlan horri esker, 2021eko aurrekontuetan 120.000 euroko partida erreserbatu zuen Udalak, dirulaguntza bidez, sektoreka banatzeko. Hala, ostalariari emandako laguntza honetara 50.400 euro bideratu ditu.

Udalak emandako datuen arabera, egun 45 taberna daude Elgoibarren, eta horietatik 42k jasoko dute 1.200 euroko dirulaguntza. Zehaztu dutenez, dirulaguntza deialdia atera zutenean, tabernetako bat itxita zegoen, eta ezin



izan zuen eskaera egin. Hala, Elgoibarko 44 tabernek eskatu zuten dirulaguntza, eta Udalak 42ren eskaria onartu du. Laguntzarik gabe geratu

diren bi tabernek ezin izan dute jasoko, Udaletik esandakoaren arabera, eskaria egiteko momentuan ez zituztelako ordainketak egunean Udalarekin.

Elgoibarko Udalak arduraz jokatzeko deia egin die elgoibartarrei Covid-19a zabaltzen ari dela ikusita

Covid-19 birusa harrotuta dabil, eta gero eta gehiago dira eremu gorrian dauden herriak. Elgoibar eguaztenean sartu zen, eta egoera horretan, Elgoibarko Udalak arduraz jokatzeko deia egin die herritarrei. Zuhur eta arretaz jokatzeko eskatu dute Udaleko agintariek, eta bide batez, une honetan indarrean dagoen araudia gogorazi dute:

- Maskara erabili behar da barruko espazioetan, eta kanpoko espazioetan, pertsonen arteko distantzia gomendagarria ezin denean ziurtatu. Pertsonen artean 1,5 metrotako distantzia mantendu behar da.
- Ez da parte hartu behar indarrean dauden prebentzio-protokoloak eta neurriak ziurtatu ezin daitezkeen bilkuretan, festetan edo ekitaldietan; ez kanpoan, ez barruan.
- Gehienez 6 pertsonako taldeetan bildu daiteke.
- Barruko espazioa etengabe aireztatu behar da.
- Sintomak izanez gero, hau da, eztula, eztarriko mina, sukarra, aire faltaren sentsazioa edo usaimena galtzea, etxean isolatu eta osasun zentroarekin harremanetan jarri behar da.
- Covid-19 proba batean positibo emanez gero edo probaren batean positibo eman duen norbaiten kontaktu zuzena izanez gero, bilaketa zerbitzuetako langileei lagundu behar zaie.



Autodiagnostikorako testak salgai, farmazietan

Espainiako Ministroen Kontseiluak oniritzia eman eta gero, eguaztenean jarri zituzten salgai COVID-19aren autodiagnostikoa egiteko testak farmazietan. Lagina norberak hartu ahal izango du test horiekin, bai eta emaitza interpretatu ere, profesional baten laguntzarik gabe. Errezetarik gabeko bi test mota egongo dira salgai farmazietan: antigeno testak eta antigorputz testak. Antigeno testa infekzioa hartu eta zazpi egunera edo sintomekin hasi eta bost egunera egin behar da, karga birala altuen dagoen egunetan, hain zuzen. Test horretarako lagina sudurretik hartu behar da, eta une horretan bertan, gorputzean birusaren osagaiak ditugun egiaztatzen du testak.



Kontuan izan behar da positibo faltsuak edo negatibo faltsuak atera daitezkeela karga birikoa baxua denean edo sintomarik ez dagoenean. Horregatik, Europako Batasunak gutxienez %97ko espezifikotasuna eta %90eko sentsibilitatea duten testak erabiltzea gomendatzen du. Autodiagnostikorako antigeno testetan positibo ematen dutenek Osakidetxari jakinarazi beharko diote.

'Ipuinen mesedea' proiektua jendaurrean aurkeztu du Myriam Martin Arritokietak

Hirulan taldeko kide da Myriam Martin Arritokieta mendaroartutako debarrara. Aurora Arritokietak eta Ane Landarekin batera hirukoa osatzen dute, eta zapatuan euren azken lana aurkeztu ahal izan zuten, Debako alamedako karpina: *Ipuinen mesedea*. Aurrekoetan ohi legez, antzerkia eta moda uztartu zituzten zapatuko jendaurrekoan. Lau ipuin zituzten grabatuak, *Txanogorritxu*, *Edurnezuri*, *Loti Ederra* eta *Ederra* eta *Piztia*, eta haien inguruan osatu dute azkeneko pieza hau. Guztira, 37 bat lagunek parte hartu zuten zapatuko saioan, eta orotara, 340 ikusle izan zituzten, bi saiotan banatuta. Ume bat izan zen oholtzara irteten aurrenekoa, ipuinak entzun nahi zituela esanez. Ama paperean jardun zuenak Hirulanek aurrez grabatutako lau ipuinak kontatu zizkion eta iruditan jarraitu ahal izan zuten kontakizuna ikus-entzuleek. Ipuinak entzun ostean, lo hartu zuen umeak, eta lo zegoen tarte horretan, ipuinetako pertsonaiek desfilatatu zuten. Pertsonai gehienek erakutsi zituzten arropak Myriam Martin Arritokietak jositakoak dira, zinemarako afizioa ez ezik jostintzarakoa ere baduelako. Ama paperean jardun zuenak eman zion azkena saioari, ipuinen aldeko aldarria eginez.



Hileko azken zapatuko feria, bihar

Uztaileko azken zapatua hilaren 31n izango da, San Inazio egunean hain zuzen ere, eta jai eguna denez, bihar egingo dute hileroko feria. Covid-19a dela-eta, oraingoan ere ez dute txosnarrik jarriko, eta umeentzako tailerrik ere ez dute egingo. Hortaz, 9:00etatik aurrera, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da Kalebarren plazan. Basartesoroeta (Basueta) eta Lizundia Txabola baserrietako produktuak eta Nagore Dorronsororen ezia erosteko aukera izango da, besteak beste. Eguerditik aurrera, berriz, ganadu feria egingo dute Aita Agirre plazan.

Santiago apostoluaren ospakizun meza domekan

Datorren domekan, uztailearen 25ean, Santiago apostoluaren eguna da. Sigma auzoko zaindaria da, eta egun horretan baita ere, Sargoateko gurutzearen ospakizuna egiten da. Bi oromen horiek gogoan hartuta egingo dute meza domekan, San Bartolome parrokian, 11:30ean.

HAIR'S ileapaindegia
 San Bartolome, 6 behea
943 531 279
ABUZTU GUZTIAN
9:00ETATIK 14:00ETARA
ZABALIK!
(ASTELEHENETAN ITXITA)
Mila esker, bezero!

LAGUNAK
 colchoneria textil hogar
 San Roke kalea, 20 - Elgoibar
 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

DESKONTUAK
%20ko deskontua ehunetan!



Panel akustikoekin kartzela itxura hartuko dute gure etxeek:

“Autopistako zaratak murrizteko panelak jarri dituzte Basarte, Erretxindi eta Arregitorre inguruan, baina panel batzuk etxeetatik gertuegi jarri dituzte. Panelak gainera ez dira batere estetikoak. Transparenteak jarri ahal zituzten, beste leku askotan dauden bezala, baina hemen jarri dituztenak berde ilunak dira. Balkoira irten eta orain horma berde bat daukagu muturrean. Kartzela batean gaudela dirudi. Panel horiek aldatzeko eskatu nahi dugu”.



Parrokiako horman pintadak egin dituzte:

“Jendeak ez dauka inolako errespeturik. San Bartolome parrokiako alboko horman pintada itsusi batzuk egin dituzte. Ez dago eskubiderik”.



Idotorbeko ingurunea lagata dago:

“Idotorbeko ingurunea oso aproposa da umeekin joateko. Herritik gertu, sekulako tokia da naturaz gozatzeko, baina azkenaldian lagata dago. Azken urteetan, esaterako, ez dute inolako berrikuntzarik egin garbitokian. Zahartuta dago, zikina egoten da eta lurtean beti ur putzuak sortzen dira. Haur parkea ere oso zaharra da, inguruko belarra moztu gabe egoten da, askotan zikinkeriz beteta. Aparkalekuak ere ez dira batere txukunak. Goikoa aldekoa, tira, baina beheko aldekoa lotsagarri dago. Ezin da erabili. Sekulako putzuak egiten dira, lokatzez beteta egoten da eta autotik irteteaz bat zikintzen da jendea. Horregatik, auto guztiak eliza ingurura joaten dira aparkatzera. Lehen hori debekatuta zegoen, baina orain gehienek han aparkatzen dute. Udal agintariei eskatuko nieke bueltatxo bat eman dezatela Idotorbera eta ikus dezatela zein egoera tristetan dagoen. Hain ingurune ederra horrela edukitzea penagarria da. Erakundeek natura zaintzeko deia egiten dute, baina gero dena lagata daukagu. Zaindu ditzagun gure bazterrak”.





Anbulatorioko igogailua hondatuta dago aspaldian: "Badira bizpahiru hilabete anbulatorioko igogailua hondatu zela, eta oraindik ez dute arazoa konpondu. Bigarren solairuan ez da geratzen, hortaz, lehenengora edo hirugarrengora joan behar da, eta gero eskailerak jaitsi edo igo, bigarrenez joateko. Pediatría Saila bigarren solairuan dago, eta ume txikiak ditugunok karroarekin joaten gara. Hortaz, derrigorrez bi heldu joan behar izaten gara, karroa eskaileretan gora edo behera eraman ahal izateko. Análisiak ere bigarren solairuan egiten dira, eta adineko asko ezinean ibiltzen dira eskaileretan. Arazoa luzeegi doala iruditzen zaigu. Lehenbailehen konpondu beharra dago".



Zergatik ez du tiketik ematen OTako makinak 13:00etatik 16:00etara bitartean? "Eguerdian libre da OTA guneetan aparkatzea, baina makinak tiketa eman beharko luke, 17:30 arte aparkatzeko baimenarekin. 13:00etan Aita Agirren aparkatu eta 15:30ean ileapaindegian edo dentistarenean txanda izanez gero, 16:00etan irten beharra dago autoari tiketa jartzera. Eibarko makinak ematen du tiketa eguerdiko ordu horietan ere, eta gabean aparkatuta ere, hurrengo goizeko ordutegiarekin jarri ahal zaio tiketa. Makina programatzea izango dela suposatzen dut, eta herritarrentzako onura handia izango litzateke. Eskerrik asko". Udaletik esan dute jarriko direla harremanetan makinak kudeatzen dituen enpresarekin eta galdetuko dutela programazioa aldatzeko aukerei buruz.



Zergatik erabili behar da musukoa Mintxetan, aire librean musukoa erabiltzeko derrigortasunik ez badago? "Mintxetako instalazioetan musukoa jantzi behar dela esan zidaten hango arduradunek eta nik ulertuta neukan aire librean maskara erabiltzea ez dela derrigorrezkoa". Kirol Patronatura jo du BARRENEK, eta Ramon Mugica zuzendariak ondorengoa erantzun du: Osasun Sailak ezarritako arauak dio ez dela musukoa beharrezkoa izango betiere erabiltzaileen arteko segurtasun-tartea errespetatu badaiteke eta gure iritziz Mintxetan, jende asko dabilen instalazio bat denez eta uneoro segurtasun distantzia bermatzen ez denez, erabiltzaileak uretan eta belarguneko partzetan ez daudenean (joan-etorrietan, sarrera-irteeran, aldageletan, komunetan eta tabernetan) musukoa erabiltzea prebentzio neurri

egokia da. Nahiago dugu erabiltzaileei musukoa erabiltzeko esfortzu hori eskatzea instalazioan eman daitekeen agerraldiren bategatik Mintxetako instalazioak xitera behartuta egotea baino. Bi urte hauetan jendea jarrera oso ona erakusten ari da eta orokorrean inzidentziaren Elgoibarko zenbakiak beste herrietakoak baino hobeak izaten ari badira, Udal Kirol instalazioetan hartutako neurri hauek ere zerikusia izango dutela iruditzen zaigu".

0 **OLAIA MARTINEZ**
ESTETIKA ZENTROA
Trenbide kalea, 21 behe, ezk.
Elgoibar
943 242 805

f **Instagram**
Abuztuaren 6ra arte lanean
9:00etatik 17:00etara jarraian.

EDERGINTZA ETA ERLAXAZIO TRATAMENDUAK

3 **BIOK**
dekorazioa **943 741 552**
606 431 120

*Eskerrik asko, bezero.
Abuztuan ere zuekin!*

Uparitzaga, 14 - Elgoibar biok@biokdekorazioa.com



► HODEI LOPEZ

ZIBERSEGURTASUNEAN ADITUA

Hackerra da Hodei Lopez (Elgoibar, 1992), eta zibersegurtasunaren alorrean lan egiten du. Enpresen segurtasun neurriak probatzea da bere lana, gehienetan informatika alorrean, baina segurtasun fisikoa ere probatu behar izaten du. Filmeetako gaizkile informatikoen edo lapurren papera betetzea tokatu izan zaio bere lanean, baina betiere, asmo zintzoekin. Segurtasun neurriak gainditzeko trikimailu asko eta asko ezagutzen ditu, eta horiek jartzten ditu praktikan bere egunerokoan. Grezian eta Londresen egon da bizitzen, baina pandemia hasi zenean etxera etorri zen, eta orain, etxetik egiten du lan. Ez dauka aspertzeko astirik, eta pasioz egiten du bere lana. Beti gauza berriak ikasten aritzen da, eta dakiena jendeari erakusteko prest dago, sektorean lanerako jendea behar delako.

- AINHOA ANDONEGI -

“Zintzoen taldean nago, baina gaizto papera betetzen dut”

◆ Hackerra zara. Nola iritsi zara lanbide horretara?

Gaztetatik gustatu izan zait informatika eta teknologia; kuriositate handia izan dut alor horretan. 11-12 urte nituela hasi nintzen MP3 aparatuak edo beste edozein pantaila zabaldu eta funtzionamendua ikasten. Beti gustatu izan zait jakitea gauzek nola funtzionatzen zuten. Kuriositate hori handituz joan zen, pasio bilakatu zen arte.

◆ Zibersegurtasunean espezializatu zara. Autodidakta izan al zara?

Bai, erabat. Interneten erreminta eta informazio asko dago gai honi buruz, eta nik dena nire kabuz ikasi dut. Ikasketak arautuan orain dela pare bat urte sortu dute master bat Eibarko Unibertsitatean, eta nahiko material ona irakasten dutela esan didate, baina ni hasi nintzenean ez zegoen honi buruzko ezer. Batxilergoa amaitu nuenean ingeniarietza informatikoa ikasten hasi nintzen, baina urtebetera utzi nuen. Hori ez zen nik nahi nuena eta ez nengoen motibatuta. Gero IMHn jardun nintzen bi urtez diseinu mekanikoko ikasketak

egiten, ikasi eta lan formatuan, baina argi neukan ez nuela hor-tan lan egin nahi. Programazio ikasketak egin nituen ondoren, baina horrek ere aspertu egiten ninduen; ez zen nik nahi nuena. Beraz, nire kabuz hasi nintzen ikasten niri gustatzen zitzaidana. Gauza askotan izan naiz autodidakta: ingelesarekin, gitarrarekin... Niri gauzak praktikatu ikastea gustatzen zait.

♦ Norberaren kabuz egindako ikasketek zabalitzen al dute lan mundurako aterik?

Niri Grezian irten zitzaidan lanerako lehenengo aukera, Apple-en soporte teknikoa eskaintzen. 700 bat euro kobratzen nituen, ez da asko, baina Greziako gutxieneko soldataren gainetik dago eta han bizitzeko moldatzen nintzen. Urtebete egin nuen han, baina gauzak ez ziren nik nahi bezala joan, eta etxera itzuli nintzen. Itzulera ez zen erraza izan. Ez neukan ez lanik, ez ikasketarik eta ez ezer, baina argi neukan zibersegurtasunaren munduan sartu nahi nuela. Formatu nahi nintzen, baina ez nuen formakuntzarik aurkitzen. 24 urte nituen, eta orduarte ez bezala, nire bidea zein zen argi ikusten nuen. Lanbidera joan nintzen eta esan zidaten handik bi hilabetera zibersegurtasunari buruzko ikastaro bat emango zutela Donostian, eta gainera, lanerako konpromiso batekin. Lau hilabeteko ikastaroa izan zen, eta irakatsi ziguten guztia nik ordurako banekien. Irakasleak curriculumak prestatzeko esan zidan eta berak gomen-datuta lau enpresatara bidali genuen, eta lauretatik deitu zidaten lanerako. Donostiako enpresa batean hasi nintzen lanean. Enpresaren segurtasuna bermatzea zen nire zeregina, eta niri gehiago gustatzen zitzaidan beste aldean egotea, hau da, enpresen segurtasuna probatzen, baina erasotzaile moduan. Curriculumak bidaltzen hasi nintzen, eta Londresen irten zitzaidan lana. 2019ko maiatzean joan nintzen Londresera, eta urtebetera pandemia hasi zenean, etxera itzuli nintzen. Orain, etxetik egiten dut lan, autonomo moduan. Londresko enpresa hau da nire bezero nagusia, baina orain beste enpresa batzuentzat ere egiten dut lan.

♦ Zein da zehazki zure lana?

Enpresen segurtasuna probatzea da nire lana, bai zibersegurtasuna eta baita segurtasun fisikoa ere. Horrek esan nahi du enpresaren segurtasun neurriak gainditzen saiatu behar naizela, bai segurtasun informatikoak eta baita segurtasun fisikoak ere. Askotan gantxoak eta bestelako tresnak erabiliz ateak ireki behar izaten ditut, edo txartelak bikoiztu ateak zabalitzeko, edo ate magnetikoak blokeatu une jakin batean barrura sartu ahal izateko, segurtasuneko langilea nola edo hala engainatu berak ateak irekitzeko... Denetik egitea tokatzen zait. Asko gustatzen zait lan hau, ez naiz inoiz aspertzen eta beti nabil gauza berriak ikasten. Nire lanari esker asko bidaiatu dut: besteak beste, Estatu Batuetan, Ekialde Hurbilean, Australian edota Britainia Handian ibili izan naiz.

♦ Segurtasuna bermatze horretan enpresetako informazio asko eskuratu dezakezu. Nola kudeatzen duzu hori guztia?

Enprekin konfidentzialtasun kontratu bat sinatzen dugu, eta haiek badakite nik lortzen dudana guztia ez dudala inon zabalduko. Nitaz fidatu behar dira, konfiantza osoa izan behar dute nigan. Ni saiatzen naiz beraien sistemari ahalik eta kalterik txikiena egiten segurtasuna probatzen dudana bitartean, baina badakite informazioa eskuratuko dudala, horretarako kontratatzen nautelako, hein batean. Nik eskuratzen dudana informazio guztia hacker gaizto batek aprobetxatu egingo luke, baina nire helburua beste bat da.

♦ Zein izan da gaintitu duzun segurtasun proba handiena?

Ekialde Hurbileko banketxe batean izan da nire lorpenik handiena. Beraien eraikina Bilboko Iberdrola dorrearen antzekoa zen, eta nire lana zen barruko bulegoetara sartzea, inolako txartel, giltza edo baimen berezirik eduki gabe. Eta, lortu nuen! Gerentearen bulegora sartzea bakarrik falta izan zitzaidan.

♦ Kasu horretan, orduan, segurtasun fisikoa probatu behar zenuen. Nola egin zenuen?

Sarrera nagusira gerturatu eta hango tornea pasatu behar nuen lehenengo. Txartel bat neraman lepotik zintzilik, enpresaren izenarekin, baina txartela faltsua zen, eta banekien ez zuela tornea zabalduko, baina nik saiatu egin behar nuen, normaltasun osoz, egunero sartuko bantintz moduan. Txirrinak jo zuen, eta segurtasuneko langileari begiratu nion, hura ez zegoela ondo esaten moduan. Beste tornu batean probatzeko esan zidan, eta hura ere ez zen zabaldu, jakina. Keinu bat egin nion protesta modura, berandu nenbilela esanez, eta orduan, berak ireki zidan pasabidea. Barruan nengoen! Lehenengo oztopoa gaintituta neukan eta bihotza taupada bizian. Komunera joan nintzen lasaizera. Hogeitatu minutu egon nintzen komunean eta lasaitu nintzenean, finantza sailera joan nintzen. Esan nien sistema informatikoa gainbegiratu behar nuela, nire txartela ez zebilela ondo, eta atea ireki beharko zidatela. Lehenengo beste departamentu batzuetara joango nintzela azaldu nien eta ordu erdi berandago itzuliko nintzela beraiengana. Konfiantza eman nien, beraiengana informatika teknikaria nintzen, eta ordu erdira itzuli nintzenean inork ez zuen zalantza jarri nire presentzia. Ate guztiak ireki zizkidaten, inolako arazorik gabe. Behin barruan egonda askatasun osoz mugitu ahal izan nintzen. Nire gailu guztiak atera nituen mahai gainera, eta denak lasai zeuden. Niretzako izugarria izan zen lan hori. Izan ahal nintzen gaizkile bat, terrorista bat, eta lortu nuen finantza sailera bulegoetaraino sartzea. Dena grabatu nuen telefonoaren kamarekin, elkarrizketak, irudiak...

♦ Eraso horiek egiten ari zarenean, nola bermatzen duzu zure segurtasuna?

Beti eramaten dut soinean enpresaren kontratua, nire datuekin

“Ekialde Hurbileko banketxe batean izan dut lorpenik handiena. Gerentearen bulegora sartzea bakarrik falta izan zitzaidan”

eta enpresako nagusiaren datuekin. Dena sinatuta egoten da eta egiten ari naizena egiteko baimena dudala azaltzen du bertan. Momenturen batean nire segurtasuna arriskuan ikusten badut, dokumentu hori erakutsi eta hor amaitzen da nire egitekoa. Banketxe hartan sartu nintzenean tentsio handia sentitzen nuen, ikusten nuelako segurtasuneko langileak arma bat zeukala, eta haiek zerbait susmagarria ikusiz gero, arma erabiltzeko baimena daukatelako.

◆ Zure lorpenek zein eragin izaten dute enpresetako segurtasunaz arduratzen diren langileengan?

Nagusiki bakoitzak bere erabakiak hartuko ditu, baina guk beti gomendatzen dugu langile horiek ez zigortzea. Langile horiek behar dutena formazioa da, erakutsi egin behar zaie eta tresnak eman behar zaizkie beraien lana ondo egiteko. Langilea formatu eta beste proba bat egiteko gomendatzen diegu. Langile berri batekin ere gauza bera gertatu ahal zaie. Guk antzerkia egiten dugu sarbidea lortzeko, eta normalean jendea gurekin fidatzen da. Informatika teknikari baten paperean sartzen naiz, inpresora errebisatzera doan langilearen paperean, kasko bat eta txaleko hori bat jantzita edo pisu handia duen kaja bat eskuan dudala jo dezaket atea... Edozer egiten dugu, eta egoera horietan datorren edonori atea irekitzen zaio. Interpretazio asko egiten dugu. Askok irakurri dut, mekanismo asko ikasi ditut, segurtasuna gainditzeko.

◆ Nolako erasoak dira ohikoenak?

Oso ohikoak dira benetakoen itxura duten e-mail faltsuak sortzea erabiltzaileek klik egin dezaten, eta klik egiten dutenean artxiiboak enkriptatzeko, birus bat ordenagailuan sartzeko... Edo eskatu ahal zaio erabiltzaileari dokumentu bat deskargatzeko, webgune batean sartzeko... Gero erabiltzaileei dirua eskatzen zaie artxiibo guztiak berreskuratuzeko, eta ordaintzen duena, normalean, galduta dago. Hasteko, inork ez dizu ziurtatzen ordainduta ere artxiiboak berreskuratuko dituzunik, eta bestalde, behin ordaintzen duena hurrengoetarako ere biktima izan daiteke. Baina eraso horiek txikiak dira, nolabait esateko. Askok eraso hobea litzateke enpresa baten finantza sisteman sartzea, adibidez. Demagun enpresa handi bateko sisteman langile berri bat sortzen duzula eta hilerohilero soldata bat gehiago sortzen dute automatikoki. Langile birtual horrek hilerohilero jasoko luke soldata, lanik egin gabe. Horrelakoak ere egiten dira. Beste batzuetan sareetarako sarbideak saltzen dira. Demagun nik lortzen dudala enpresa baten sarera konektatzea, baina ez daukadala beste interesik sare horren barruan. Sarbide hori beste hacker bati saldu ahal diot, berak sare horri eraso diezaion.

◆ Zure lanbideko asko hacker gaiztoak izatetik iritsi dira zintzoen taldera. Zuk ez al duzu sekula izan alde ilunera pasatzeko tentaziorik?

Ez, ez du merezi. Nik badakit nola egin lapurreta bat banku bati, eta kapaz izango nintzateke, gainera, lapurtutako dirua desagerrarazteko, bitcoin bihurtuta, esaterako. Eta, gainera, nire arrasto guztia ezabatuz ere gai naiz. Baina hortik aurrera belldurrez biziko nintzateke, harrapatuko ote nauten kezkaekin egongo nintzateke egunero, eta ez du merezi. Ondo bizi naiz,



“Sektore honetan soldatak oso onak dira eta lana soberan dago. Lanerako jendea falta da”

lana soberan daukat, soldata ona irabazten dut eta horrekin nahikoa daukat, ez dut gehiago behar. Ezagutzen dut alde ilunetik etorri den jendea: Chema Alonso Telefonicako zuzendaritzako taldean dago orain, baina horra iritsi aurretik Telefonicari berari eraso zion. Uste dut kartzelan ere sartu zutela, baina gero Telefonicak berak kontratatu zuen. Horrelakoak ohikoak dira mundu honetan. Beste batzuk hacker solidarioak dira. Duela pare bat urte banketxe bati sekulako eraso egin zioten. Hiru erasotan diru kopuru handia lapurtu zioten, eta hirugarrengoa konturatu ziren erasoaz. Errusian agertu zen diru hori, berehala bitcoin bilakatu zuten dirua, eta herri indigena bati eman zitzaion diru hori. Hackerrak manifestu bat atera zuten egin zuena esplikatzeko, eta esaten du lehenengo erasoan diru kopuru handiagoa atera izan balu, inor ez zela konturatu egin zuenaz, eta hirur eraso egitea izan zela bere hankasartzea. Oraindik ez dute hacker hori harrapatu, baina bere atzetik dabilta. Ez nuke horrela bizi nahi. Sektore honetan soldatak onak dira eta lana soberan dago. Lanerako jendea falta da. Ni prest nago dakidan guztia jendeari erakusteko. KZ Gueari egin nion eskaintza. Doan irakasteko ere prest nago, komunitatea sortzeagatik. Langabezian dauden gazteentzat irtenbide ona dela iruditzen zait. 3.000 euro inguru irabazten ditut hilean eta hori niretzako sekulako dirutza da.

“Apur bat mesfidatia izateko esango nioke jendeari, ez fidatzeko jende guztiarekin”

◆ Hackerren filmetan ikusten dugun moduko bizimodua da zurea.

Hackerren filmetan ikusten den guztia ez da sinistu behar, baina badaude batzuk nahiko errealistak direnak, esaterako, *Mr. Robot*. Serie horretan ikusten diren gauza asko benetakoa dira, eta han erabiltzen dituzten erreminta asko erabiltzen ditugu guk ere. Bi talde daude ziberseguritatean: urdina eta gorria. Nik ekipo gorrian jotzen dut. Urdinak dira defentsa egiten dutenak eta gorriak erasotzaileak, baina nire kasuan eraso ez da mina egiteko, baizik eta segurtasuna frogatzeko, eta enpresari ahalik eta min gutxien egiten saiatzen naiz eraso horretan. Denbora jakin bat izaten dut enpresa konkretu bati eraso egiteko, eta denbora horretan lortu behar dut segurtasun sistema gainditu eta ahal dudana informazio gehiena eskuratzen. Gero informazio hori erabiltzen dut enpresari entregatu beharreko informeak egiteko, baina sekula ez dut inon zabaltzen. Filmeko gaiztoa naiz, nolabait esateko, baina enpresaren babeserako egiten dut lan.

◆ Zintzoen taldean zaude, baina gaizkile izateko prestatuta zaude.

Bai, hala da, zintzoen taldean nago, baina gaizto papera betetzen dut. Gaizkileen eskuorri guztiak ezagutzen ditut, txartelak bikoizteko materiala erosi berri dut Internetez... oso erraz lortzen

da material hori gaur egun. Banketxeetako kutxazainak zabalteko giltzak ere erosi izan ditut Internetez. Ekialde Hurbilean zabaldu genuen behin kutxazain bat. Nire lankide bat kutxazainaren mantenuko langilearekin geratu zen, eta hark zabaldu zuenean ikusi zuen kutxazainaren modeloa. Zarraila hori apurtzen denerrako piezak lortzea erraza da, eta hori egin nuen: modelo horretako zarraila erosi, eta hark giltza ere ekartzen zuen, jakina. Horrekin egin genuen proba eta ireki genuen.

◆ Zure egunerokoan deskonexiorik ba al duzu?

Ez. Nire burua etengabe lanean ari da. BARREneko bulegora sartu naizenean ere bulegoaren erradiografia moduko bat egin dut nire buruan: ikusi dut hainbat Mac dituzuela, beste windows batzuk eta horren arabera imagina dezaket zein sare sistema erabiltzen duzuen eta hasi ahalko nintzateke segurtasuna probatzen. Ez naiz aspertzen nire egunerokoan, hau da nire pasioa. Nire lana da nire afizioa, hau da nire mundua eta oso ondo bizi naiz. Oso argi neukan hau egin nahi nuela, eta azkenean lortu dut. Astelehenetik ostiralera egiten dut lan, zortzi ordu egunean, baina lan jarduna amaitu ondoren ere nik lanean jarraitzen dut. Pantailai lotuta bizi naiz. Dokumentalak edo bideo landuak ikustea gustatzen zait Internetez, serieak ere gustuko ditut, sukaldatzea ere bai... Txakur bat daukat, eta oso ondo etortzen zait, berari esker pantailak utzi eta kalera irteten naizelako. Lagun birtualekin geratzen naiz eta elkarrekin jokatzen dugu edo elkarrekin ikusten ditugu dokumentalak, eta tardeka elkartzen gara. Lagun gehienak kanpoan ditut, Elgoibarren ez daukat apenas lagunik. Txikitatik izan naiz desberdina, eta ez nintzen ondo konpontzen nire adinekoekin. *Bullying*a ere jasan nuen umetan eta eskolaz aldatu behar izan nuen. Zorionez, hori guztia gaindituta daukat, eta gaur egun ondo nago. Gurasoek ere ez didate inoiz oztoporik jarri izan nahi dudana izateko, eta orain beraiek ere pozik daude ni ikusita.

◆ Zein aholku eman dezakezu jendea seguruago bizitzeko?

Apur bat mesfidatia izateko esango nioke jendeari, eta ez fidatzeko jende guztiarengan. Kutxazain batera dirua ateratzera joaten naizenean beti egiaztatzen dut txartel irakurgailua benetakoa dela eta kamerarik ez dagoela. Txartel irakurgailua faltsua bada, tira pixkat eginda irten egiten da, beraz, ez bada irteten bere lekutik, benetakoa izango dela pentsatzen dut eta lasai ateratzen dut dirua. Era berean, mezu arraro guztiak ezabatu egin behar dira, ez da email susmagarrietan klik egin behar, edo deitzen badizute Microsoft-etik datuak eskatzen ez dira inoiz eman behar. Gauza bera pakete bat iritsi zaizula esaten duten mezuekin, edo sari bat irabazi duzula... denak dira gezurretakoak. Klabeak aldatzen ez ibiltzeko ere aplikazioak daude klabeak kudeatzeko, eta ez daukazu klabe bat bera ere gogoratu behar. Antibirusak ere ondo daude, baina askotan uste dugu zenbat eta garestiagoa hobea dela, eta Windowsek berak ekartzen duena izaten da askotan eraginkorra. Ez du merezi segurtasunarekin obsesionatzeak, baina adi egotea komeni da.

◆ IÑAKI ARREGI, Mendaroko alkatea

Aurten ere ez dela santanarik izango jakinarazi du Mendaroko Udalak eta arduraz jokatzera deitu du alkatea.



“Etorri, disfrutatu, baina neurritz, ardura handiz”

◆ Bigarren urtez ez da jairik izango Mendaron, baina iaz ez bezala, aurten egitarau zabala antolatu duzue jai-egunak izan ohi direnetarako. Zerk bultzatu zaitue horretara?

Argi genuen azken urte eta erdian bizitako garai zailak atzean utzi, eta herritarrei ilusio pixkat eragingo dieten ekintzak antolatu nahi genituela. Hasi ginen ekintza solteekin, *Begiekin Entzutekoak* zikloarekin... eta egun hauetarako ere kultur egitaraua antolatu dugu Jai Batzordean, eragileekin elkarlanean.

◆ Erraza izan al da erabakia?

Antolakuntzan hasi ginenean duela ia 2 hilabete, ikusten genuen osasun egoera hobetzen ari zela. Orain, ordea, atzerapauso txiki bat eman dugu, baina segurtasun eta prebentzio neurri oro betez, kultura segurua da. Mendaron ere hori guztiz bermatua dago. Erabakia ez da ez zaila, ez erreza izan. Egoera hain da aldakorra, unean unean erantzun eta neurriak hartzen goazela. Herritarrak animatu, eta ohiko segurtasun neurriak betez, parte-hartzera nahi ditut gonbidatu.

◆ Zer mezu eman nahiko zeniekete herritarrei?

Aurten ez dugula jairik eta hori oso presente izan behar dugula. Ez nuke nahi azken astetotan herri askotan ikusi ditugun kutsatuen goranzko joera izaterik Mendaron. Jai-girorik eta ekintzarik ez da izango, eta distantzia soziala mantentzea, eta higiena eta musukoaren erabilera oinarritzeko dira. Kultur eta kirol ekintza guztietan hori bermatua dago. Neurri zorrotzak ditugu, aforo mugak... Etorri, disfrutatu, baina neurritz, ardura handiz.

Egitaraua

Uztailak 24, zapatua

11:00 Padel txapelketako finala, kirolgunean.

17:00 Dantza emanaldia frontoian

18:00 DJ Pius Garagartzan.

20:00 Saia Goait taldearen kontzertua, Garagartzan.

Uztailak 25, domeka

11:00 Puzgarriak eta urtxirrista, Azpilgoetan.

17:00 MTE pilota eskolako haurren erakustaldia eta Emakumeen Pilota Txapelketako finala.

20:00 Errietan taldearen kontzertua, Garagartzan.

Uztailak 26, astelehena

11:30 Meza nagusia, Azpilgoetan.

12:30 Bertso jaialdia, frontoian. Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Sebastian Lizaso eta Eli Pagola.

Jai-jartzailea: Amaia Agirre

18:00 Las Divas del Soul, frontoian.



Dantza, ahalduntzeko bide

Dantza garaikideko irakasle, koreografo eta dantzari Myriam Perez Cazabonen 'Nire azalean arrotz' eta 'Nerea Gurrutxaga eta Oihana Vesga dantzari donostiarrek elkarrekin sortutako Leiho zikin, zeru garbi' koreografieez gozatzeko aukera izango da bihar, 17:00etan, Goñati frontoian. Sarrerak udaletxean eta Lagun Betikoak tabernan eskura daitezke.

Myriam Perez Cazabonek (Oartzun, 1981) zuzendutako obra da *Nire azalean arrotz*, Leire Otamendirekin batera taularatu zuena. Donostia eta Irun artean eman zituen dantzarako lehen pausoak Perez Cazabonek, eta ondoren, Codartsera jo zuen (Rotterdam) goi-mailako ikasketak egitera. Bere estreinako sormen lanetako bat *Nosotras y la pieza* (2014) izan zen, Nerea Urbietarekin eta Marta Ortegarekin batera sortua. Hainbat diziplinako konpainia, koreografo eta artistekin lan egin du hala ere urteetan, baina "kezka eta interes pertsonalek eta berezko lengoia koreografikoan sakontzeko beharrak bultzatuta", konpainia sortu zuen 2016an, Jaurlaritzaren dirulaguntzari eta Gipuzkoako Dantzagunea eta Donostia Kulturaren laguntza eta lankidetzari esker. Bultzada horri esker sortu zuen 2017an *Hutsunea*, eta ondoren etorri ziren *Nire azalean arrotz*, 2017an, eta *Mutu*, 2018an. Mendaron erakutsiko duen lana, baina, pertsona baten presentzian gertatzen den aldaketaren inguruko hausnarketa da. Pertsona baten barne-mundua hausten deneko girora eramaten gaitu. Barne-mundua haustean, pertsonoi arrotz egin ohi zaizkigu gure izateko, egoteko eta jarduteko moduak, eta horren inguruan gogoeta egiten du dantzariak, keinu txikien eta mugimendu delikatuaren bidez.



Leiho zikin, zeru garbi dantza pieza, berriz, Oihana Vesga eta Nerea Gurrutxaga dantzari eta koreografo donostiarrek elkarrekin sortutakoa da. Lagun handiak dira Oihana Vesga eta Nerea Gurrutxaga, dantza dute pasio, eta urte asko kanpoan ikasten pasatu ondoren, elkarrekin lan egiteko batu ziren. Mendaron erakutsiko duten dantza Sortutakoak 15 programaren barruan Gipuzkoako Dantzagunean egindako egonaldian osatu zuten, eta dantza ahalduntzeko duen indarra erakutsiko dute oholztan. Dantza mugimendu eta ariketatik abiatuta, eta ahotsa uztartuta, emakumearen espazioa erreklamatzeko zer den erakutsiko dute, horren inguruko gogoeta sustatu. Lanean zehar bi espazio bereiziko dituzte, karratu barrukoa eta kanpokoa, eta kanpo eta barne espazioaren arteko esanahiekin jolastuko dira. Espazioak gorputzean duen eragin zuzena aztertuko dute, mugimenduaren ikuspegi binarioa zalantzan jarri. Dantza emanaldirako gehienez 175 lagunentzako lekua izango dela jakinarazi du Udalak, eta sarrera eskuratzea beharrezkoa izango dela. Sarrerak udaletxean eta Lagun Betikoak tabernan eskura daitezke, doan.



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industriagunea, 9 - 20850 Mendaro
943 756 112 / 636 497 48 - www.iraolagoitia.com



Artxau aroztogia



Etxe-aldaketa azarbitzaia



Sarmenta eta banaketa



Eskurmentua eta ialetzea

**Egurra koronabirusari eta uda on guztioi!
Zure ondoan gaituzu, behar duzunerako.**

Saia Goait

Mutrikun sortutako laukotea da Saia Goait eta zuzeneko bizia eskaintzera datoz Mendarora. Aitzol Urkizak, Beñat Peralesek, Denis Alberdik eta Mikel Teillabide mendaroarrak osatzen dute gaur taldea eta stoner-rocka eta hard-rocka egiten dituzte. Bihar, Garagartzako plazan arituko dira, eta sarrerak udaletxean edota Lagun Betikoak tabernan eskuratu behar dira.

- AINARA ARGOTIA -



“Gure termometro onena zuzenekoak dira”

◆ Musikan ibilbide bat egina zenuten denok ere, baina elkartu eta Saia Goait sartzera erabaki zenuten. Zerk bultzatuta?

2017an izan zen hori, hor nonbait. Beñat Perales (abeslaria), Denis Alberdi (bateria), Jon Antxustegi (baxua) eta ni, Aitzol Urkiza, lagunak ginen, Mutrikuko Rock Kolektiboaren jirakoak eta aurrez beste talde batzuetan ibilitakoak, baina momentuan talderik gabe geunden eta Saia Goait sortzea erabaki genuen, stoner rock-a egiteko asmoarekin. Eta 2019an, kaleratu genuen gure lehen diskoa. Disko homonimoa izan zen, taldearen izen berekoa, sei kantutakoa.

◆ Saia Goait. Zenbatetan irakurri duzue oker izena?

Egia da burukomin batzuk eman dituela izenak, eta behar bada ez dela errazena esateko, baina guri gustatu zitzaigun esanahia eta ez dago beste bueltarik. ‘Saia Goait’ esaten digute askok, baina listo, onartzen dugu hori ere! *Kar-kar*. Taldeari izena jartzeko momentua beti da konplikatu, baina asmatu genuen gurea. ‘Saia’ putzari esaten zaio eta ‘goait’ hitzak erne egotea esan nahi du Iparraldeko euskarari.

◆ Mutrikuko Rock Kolektiboaren bueltan ibilitakoak zaretela aipatu duzu. Badu Mutrikuk musikarako afizioa. Zuek aurrez beste zein taldetan ibilitakoak zarete?

Bai, beti egon da musikarako zer hori Mutrikun. Itoitzek eta euskal rockaren bigarren kolpearekin batera sortutako Delirium Tremensek lortu zuten besteko sonik ez dute izan beste talde askok, baina filosofia hori egon da eta izan dira taldeak eta etorriko dira gehiago ere. Urte batzuk emankorragoak izaten dira beste batzuk baino, baina orain ere badaude: Errietan, Lau Mono, Biren... Gure hasierako laukoteko Jon eta

Beñat Krausk metal taldean ibili ziren urteetan, Denis, berriz, Ondarruko Keike taldean ibilitakoa eta nik [Aitzol] Karenkan jo nuen.

◆ Bi urte eskas pasatu dira ‘Saia Goait’ zuen estreinako diskotik, baina laster ei da bigarrena. Zeri kantatzen diozue?

Bai, 2019ko ekainean grabatu genuen Mutrikuko AME estudioan, Axular Arizmendi soinu teknikariarekin, baina irailean eman genuen argitara. Sei kantu jaso genituen. Iñigo Arrizabalaga mutrikuarrak sortu zigun *Ekhidistantzia* kantuko letra, baina gainerakoak geureak dira oso-osoan, eta batez ere, kritika soziala egiten dugu haietan, beti ere autokritikatik abiatuta. Disko horretara iristeko, bi urteko bidea egin genuen eta esan dezakegu musika industriak bultzatu ohi duenaz bestekoa izan zela, orain normalagoa baita diskoa atera, single bat gero eta zuzenekoak ematen hastea ondoren. Baina guk gure indarren arabera jokatu dugu beti, espero denaren arabera beharrean. Zuzenekoetan hasi ginen eta gero sei kantu aukeratu genituen diskorako. Definitzeko ahalegin bat izan zen diskoa, baina finitze horretan gabilta. Orain sentitzen dugu nahikoa hurbil gaudela izan nahi dugun hortatik, gustatzen zaigun hortatik.

◆ Definitze horrek nora eraman zaituzte?

Gure termometro onena zuzenekoak dira. Estudioan dena konpontzen da, baina zuzenekoetan sentitzen da eta gustatuko litzai-

guke zuzenekoetako energia izatea taldearen ezaugarri bereizgarria. Diskoan luzitu dezaketen abestiak baino gehiago zuzenekoetan defenda ditzakegunak gustatzen zaizkigu.

◆ Lau lagunek sortu zuten taldea, eta otsailean batu zinen zu laukotera, Mikel, Jon Antxustegik lagatako lekura. Nola izan zen?

“Gustatuko litzai-
guke zuzenekoetako
energia izatea
taldearen ezaugarri
bereizgarria”

Aitzol jarri zen nirekin harremanetan. Gaztetxean ibili nintzen garaitik ezagutzen nuen Aitzol, Karenka taldean ze-bilen garaitik. Mendarora ekarri genuen guk Karenka erro-meria taldea, Gaztetxera, eta akordatzen naiz sekulako giroa jarri zutela eta neu ere igo nintzela oholtzara kanturen batean gitarra jotzera. Geroztik harremana mantendu dugu eta halako batean taldera batzeko proposamena eginez deitu zidan. Ordurako Saia Goait taldearen zale amorratua nintzen ni eta gitarrarekin ere aterata nituen haien kantu batzuk. Aitzolek deitu zidanean, baina, baxu jolea behar zutela esan zidan eta kosta zitzaidan baietza ematea, ni gitarra jotzetik nentorrelako, baina konbentzitu ninduten etxean eta batu nintzen taldera, probatzera. Eta egia esan, oso-oso gustura nago taldean. Hasieran kostatu zitzaidan pixkat, baina baxua ere erosi dut, eta lotuta nago orain. *Kar-kar.*

♦ **Urrian estudioan sartuko zarete berriro. Diskora orduko zuzenekoetan bidea egin zaleak zarete, baina pandemia tokatu zaizue. Nola bizi duzue egoera hau?**

Batzuetan ematen du zazpi urte joan direla lehenengo diskotik, baina ez, 2019ko irailean atera genuen, eta pandemiak harrapatu gintuen gero. Itxialdia aurreko asteburuan Lizarran eta Munitibarren eman genituen kontzertuak, eta lotuta geneuzkan beste kontzertu itxuroso batzuk ere, baina kolpetik etorri zen etorri zena. Pozik geunden disko harekin beste bide bat zabaltzen hasiak ginela iruditzen zitzaigulako, gure txikitasunean zortzi bat kontzertu lotzea gauza handia delako, baina iritsi zen 2020a, geldialdia. Denok sufritu dugu, baina kulturak asko, eta eragin digu, bai. Geldi ez gara egon, hala ere. Jakin dugu aurrera egiten. Antolatzaileak-eta beldurrez dabilta oraindik, baina hala ere, lau kontzertu lotuta dauzkagu eta gogotsu gaude [Bihar Mendaron joko dute, abuztuaren 13an Donostiako Tabakalera, Irailaren 18an, Arrasateko Gaztetxean eta Irailaren 25ean, Mutrikuko Gaztetxean]

♦ **Zer etorriko da bigarren disko horretan?**

Lehenengoa baino luzetxoagoa izango da, zortzi-bederatzi bat kantukoa. Kantuetako bat grabatu dugu Mutrikuko Gaztetxean 20. urtemugaren harira eta single moduan eman dugu. Soinuera beharbada rockeroagoa izango du. Ez dakigu, baina uste dugu eboluzio bat egongo dela hor.

♦ **Zer nolako kontzertua aurreikusten duzue biharkoa?**

Pandemian hiru kontzertu eman ditugu, publikoa eserita dagoela eta egia esan hotza da oso. Etxebarriko kontzertuaren ostean egon ginen komentatzen. Orain, kantu bat amaitzen da, txalo batzuk jotzen dituzte ikusleek eta sortzen da isiltasun bat oso gogorra egiten dena. Eta jardun gara hortarako prestatzen ere. Talde handiek ez dute beharbada arazo hori, jendea kontzertua hasi ordurako poltsikoan izaten dutelako, baina gu ez gara oraindik maila horretara iritsi. Guk dena emango dugu. Kontzertu dinamikoa izango da.

EGUNEKO ZENTROA

ZUREKIN, S.L.



Maria Luisa Fernandez
Nuria Ansuategi
Fidel Ambrona

Azpilgoeta, 32
20850 Mendaro

Tel.: 943 031 746
e-posta: zurekin@euskalnet.net

ERRETEGIA
943 756 028
Gaztetxa, 32 - MENDARO

Eskerrik asko, bezero! Egoera zailenetan ere beti zuen alboan.

Eguerdietan bakarrik zabalduko dugu



*Santanak
beti bihotzean!*

Errietan

Mutrikuek dira, eta zazpi lagun dira taldean. Erritmo biziak, alaiak eta dantzagarriak jotzen dituzte eta kantu propioak eta beste talde batzuen kantuen bertsioak nahasten dituzte zuzenekoan. Eta domekan, beren onena ematera datozela aurreratu dute. Garagartzako plazan joko dute, 20:00etan hasita. Sarrerak udaletxean eta Lagun Betikoak tabernan eskuratu daitezke.

- AINARA ARGOITIA -



“Ea jarraitzaile berriak egiten ditugun Mendaron!”

◆ Noiz eta nola sortu zenuten Errietan taldea?

2018. urteko irailean eman genuen lehenengo kontzertua Mutrikuko Samikolla auzoko jaietan. Hasiera batean, kontzertu hori emateko bildu eta bakoitzak bere bidea jarraitzea zen asmoa, baina izugarri harrera ona izan genuen. Pentsa! Kontzertu haren ostean Ondarrun jotzeko proposamena egin zigiten, eta harrera on hark hauspotuta, taldea sortu eta aurrera egiteko apustua egin genuen

Taldean aldaketa dezente izan ditugu arrazoiz ezberdinetatik. Errietan sortu zenean, Irati Alberdi zen gure bateria jolea eta orain dela gutxira arte Maitalen Aranberriak jo du baxua. Orain momentuan, Amaia Mote (ahotsa), Nahia Elesgarai eta Leire Elezgarai (gitarak), Ainhoa Arreitunandia (baxuarekin, teklatura alde batera utzita), Iera Naberan (bateria), eta neuk, Julen Ruizek (saxofoian eta ahotsa), osatzen dugu Errietan.

◆ Zer tipotako musika egiten duzue? Zeri kantatzen diozue?

Diskoa grabatzeak lagundu digu pixka bat gure estiloa argitzen; esan dezakegu, pop-rock estiloetatik mugitzen garela gehienbat. Gure abestiak egunerokotasunean bizi izandako esperientzietan oinarritzen dira, zer pentsa eman diguten kontuetan. Hala, abestietan sarturik doaz bizi izandako zailtasunak, egoera deserosoak, zein maitasun eta laguntasun mezuek.

◆ Zuen kantu propioez gain, beste talde batzuen kantuen bertsioak ere jotzen dituzue. Zeintzuk talde bertsionatzen dituzue, adibidez?

Errietan bertsioetara emandako taldea izan da pandemiara arte, eta hizkuntza eta estilo ezberdinetako taldeen kantuen ber-

tsioak jo izan ditugu hasiera-hasieratik. Taldearen esentzia hori izan da, eta diskoa argitaratu eta gero ere, jarraitu dugu beste kantuak jotzen. Oso estilo ezberdinetako taldeen kantuak jotzen ditugu. Esate baterako. La Oreja de Van Gogh, Zea Mays, Tina Turner...

◆ 2021eko Aste Santuan sartu zineten diskoa grabatzera eta crowdfunding bidez finantzatu zenuten. Pandemia betean egingo zenituzten prestaketa lanak. Nola egin duzue? Eraginik izan du pandemiak kantutegian?

Pandemian hasi ginen kantuak sortzen eta, egia esateko, pandemia hau izan ez balitz, beharbada ez genukeen diskoa grabatzeko pausoa emango. 2020ko udan, idatzitako abestiak zabaltzeko eta ezagutarazteko prozesuari hasiera eman genion *itsulapikoa.eus* web orrialdean crowdfunding kanpaina bat zabaldua [Gutxienez 4.000 euro behar zituzten]. Inguruko jendeak, eta batez ere mutrikuek emandako babes oso garrantzitsua izan zen, eta haiek guztiei esker, aurrera egitea lortu genuen.

Pandemia betean prestaketa lanak egitea ez da erraza izan; kantuak kontrako bidea egin dutela esan dezakegu. Etxean banakako lana eginda, AME estudioetan borobildu genituen abestiak Axular Arizmendiren laguntzarekin. Lan egiteko

modu hori ez-ohikoa izan bada ere, talde gisa zein banakakoan hobekuntza handia nabaritu dugu.

◆ Kultur ekitaldiak hasi dira ugartzen, baina pandemiaren sektore kalteuenetako bat izan da. Diskoaren aurkezpenean nola eragin dizue pandemiak?

Momentu zail hauetan kontzertuak

“Gure abestiak egunerokotasunean bizi izandako esperientzietan oinarritzen dira”

ematea plazera da guretzat. Gu normalean herriko festetan jotzen ibili izan gara, baina pandemiaren eraginez herriko festak gutxitu dira, eta festekin batera, kontzertuak ere bai, jakina. Eta zailtasuna, beraz, agerikoa da. Ez dira kontzertu asko izan, baina kontzertu banaka batzuk eman ditugu Mutrikun eta inguruan, eta pozik gaude. Ikusten dugu apurka-apurka kultura hasi dela arnasa hartzen eta ugari-tzen ari direla aukerak. Jendeak ere badu kontzertuez gozatzeko gogoia eta zuzenekoetan oso agerikoa da hori. Diskoa sare sozialen bidez zabaldu dugu guk gehienbat. Spotifyn, Youtuben, Apple music-en eta beste plataforma digital batzuetan ere badago entzungai.

♦ **Eta, zer nolako harrera izan du diskoak? Nolako aurreikusten duzue uda?**

Diskoa Mutrikun aurkezteko aukera izan genuen. Egun bakar batean bi kontzertu eman genituen eta jendez bete ziren biak. Horren ostean, Urrestillan eta Hernanin egon gara kontzertuak ematen eta aurreragorako ere baditugu batzuk lotuta. Orokorrean jendeak oso ondo hartu du; jasotako mezuak behintzat positiboak izan dira.

Irratietan ere entzun dugu *Begiradak* abestia, diskoaren aurkezpen kantatzen aukeratu genuena, eta hori arraroa bezain pozgarria izan da guretzat. Nork esango zigun guri Gaztea zein Naiz irratiak entzuleek entzungo gintuztela? Oso pozik gaude!

♦ **Nolakoak dira Errietanen zuzenekoak? Zer eskaintzera zatozte Mendarora? Zer espero duzue mendarora-erregandik?**

Esan dezakegu, egoera normal batean, Errietanen kontzertuetan jai-giroa dela nagusi; pandemiak, baina, mugatu digu hori ere. Eserita egon beharra, musukoarekin eta ikusleen aurpegiak ikusi gabe... horrela oso zaila da oholza gainean egotea, ez pentsa! Hala ere, gure onena ematen saiatzen gara beti, ikusleak gustura sentiarazten, abestera animatzen...

Mendaron gure diskoa aurkeztuko dugu, baina bertsoak ere joko ditugu, denon gozamenerako. Seguru gaude harrera ona izango dugula Mendaron. Ea jarraitzaile berriak egiten ditugun zuen herri horretan.

♦ **Jakin dugu abuztuaren zuen herrian jotzekoak zaretela. Zuen agendaren berri emango zenigukete?**

Abuztuaren 5ean Mutrikuko Bada Posible kultur jaialdian egongo gara, eta hori baino lehenago baditugu beste bi kontzertu: igandean, Mendaron, eta 31n, Lekeition. Aurreragorako bagaude beste kontzertu batzuk lotzen ere, eta horien berri sare sozialen eta komunikabideen bidez emango dugu. Errietaneko kideok gure musika zabaltzeko irrikaz gaude eta pozik hartzen ditugu herri ezberdinetatik jasotzen ditugun gonbidapenak. Ea pixkanaka kontzertu gehiago ematen hasten garen.



ESKOLA KANPAINA -%10

Tel.: 943 033 631
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

Eskerrik asko, bezero!



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNCra AUTOMATIZAZIOA.
ERREMINTA MAKINA BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.

SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industrialea SE-5 • 20850 Mendara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 688 / 639 710 183 • Fax: 943 742 346
www.santosypatxi.com • comercial@santosypatxi.com

AUTOZERBITZUA

ELKAR

COVIRAN



Garai zailenetan ere mendarorarrekin!

Kilimon Hiribidea, 5 behea
MENDARO - 943 608 031

Enkarguak hartzen ditugu.

TAXI

Kontxi Urain MENDARO

Mobila:
607 575 728

Eskerrik asko, bezero!



electricidad PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
perosanz@euskalnet.net

Egoera hauetan gudan jarritako konfidantza eskertzen dugu.

Ibargain 17, AC behea
Tel.: 943 202 268
20600 EIBAR

Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
20850 MENDARO

Betiko usadioan

Mendaroko Udalak datozen hiru egunetarako antolatu duen agendan musika da nagusi, baina bertsoak eta kirola ere ez dira faltako.

IVAN DIAZ. DJ PIUS. BIHAR, 18:00ETAN, GARAGARTZAN

♦ 23 urte dituzu, baina badira urte batzuk musika jartzen ibiltzen zarela. Noiz hasi zinen, eta zein izan zen zure aurreneko plaza?

Duela bost bat urte-edo izango zen, Mendaron bertan. Gaztetxekoek deitu zidaten frontoian antolatu zuten jai baterako. Ez daukat gogoan motiboa zein zen. Niri beti gustatu izan zait musika, eta jarraitzen nituen DJ batzuk, bereziki David Guetta eta Avicci, eta erosi nuen nahaste-mahaja ere. Interneten ikusi nituen bideo tutorial batzuk, eta hasi nintzen nire kasa probatzen, etxean. Gaztetxekoek eskatutako hura izan zen estreinako saioa, baina gerora izan ditut beste aukera batzuk ere, gehienak Mendaron. Herritik kanpora joan izan naiz gazte kuadrillentzako ospakizun bakar batzuetara, baina ez pentsa asko ibili naizenik.

♦ Gaztea eta herrikoa. Derrigor ezagutu behar dituzu ondo herriko gazteen gustuak! Zer eskatzen dute?

Denetarik, baina jaietan, euskal musika eta rocka batez ere. Hala ere, reggeatoia ere gustatzen zaie.

♦ Herrikoa izateak badu bere alde txarra ere: denak eskean hastea. Eskatutakoak jartzen dituenetakoa zara ala gehiago zuk gustuko duzuna egitekoa?

Bai, hori badago. Gutxi gorabehera pentsatuta eramaten dut zerrenda bat, baina eskatzen didaten hori baldin badaukat behintzat, saiatzen naiz jartzen, momentuan ez bada, geroago.

♦ Goizaldera ikusi izan zaitugu beti musika jartzen. Oraingoan, egun argiz jardungo zara. Aldatuko du horrek ere zerbait, ala?

Bai, dena. Ez dakit zer izango den. Uste dut, gainera, publikoak eserita egon beharko duela. Egia esan, erronka handia izango da baldintza horietan musika jartzea, baina egingo dugu giroa jartzeko ahalgina. Musika lasaiagoa jarri beharko dudala pentsatzen hasita nago, baina ikusiko dugu momentuan zer eskatzen duen jendeak. Egoera berezia izango da, baina momentu honetan horixe tokatzen da: ondo pasatzea, baina arduraz jokatuta.



LAS CHICAS DEL SOUL. ASTELEHENEAN, 18:00ETAN

2015. urtean sortu zuten Evening Prayer bikoia Lidia Insausti abeslariak eta Iñaki Miguel pianista eta gitarra joleak, Mahalia Jackson, Marion Williams edota Clara Ward erreferentziatzat hartuta. Orain, Andoni Etxebeste bateria-jole lagun hartuta ari dira, *Las chicas del soul* ikuskizunean. Soul musikaren historiako emakumezko ahots garrantzitsuenen errepassoa egiten dute 80 bat minutuko saioan. Nina Simone, Aretha Franklin edo Etta Jamesetik Roberta Flackerainoko errepassoa. Frontoian izango da kontzertua, astelehenean, 18:00etan hasita, eta sarrerak udal-etxean edota Lagun Betikoak tabernan eskuratu behar dira.

EMAKUMEEN PILOTA TXAPELKETAKO FINALA ETA HERRIKO PILOTARIEN ERAKUSTALDIA. DOMEKAN, 17:00ETAN

Emakumeen Pilota Txapelketako finala eta Mendaroko MTE pilota eskolako pilotari gazteen erakustaldia izango dira domekan, frontoian. Lerro hauek idazteko unean zehaztu gabe zegoen oraindik Emakumeen Pilota Txapelketako finala zeintzuk jokatuko zuten, finalerdietarako sailkatutako pilotarietako batek positibo eman zuelako COVID-19aren proban eta ezinbestean atzeratu behar izan zutelako finalerdia [Getarian jokatzea zuten, ondo bidean, eguazten iluntzean]. Emakumeen Pilota Txapelketako finalaren aurretik, baina, herriko gaztetxoak arituko dira pilotan, MTE pilota eskolako mutilak. Mendaroko Txirrindulari Elkartearen adar bat da MTE pilota eskola eta 2015. urtean sortu zuten, "herrian frontoia egonda haurrei beste kirol bat probatzeko aukera emateko", Ander Zulaika MTEko presidentearen arabera. 18 umerekin ekin zion pilota eskolak, baina batez beste zortzi-hamar bat ume izaten dira urtero. "Gogoz hasten dira, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara iristen direnean, bereziki bigarren maila hasten dutenean, laga egiten dute gehienek", zehaztu du Naiara Arrillagak, pilota eskolako arduradunak. Adin tarte horretara iritsita, pilotan jarraitu duen bakarria Haitzart Iraolagoitia izan da. Bigarren mailako kadeteetan ari da lehiatzen egun, eta datorren urtean jubenetarako saltoa emango du. Bera da hain justu ere pilota eskolako entrenatzaileetako bat, eta herriko pilotari gazteen erreferente gertukoa. Jose Mari Garate *Animarte* eta biak aritzen dira entrenatzaile lanetan eta aipatu dute herrian zuriz jantzita jokatzea gauza handia dela. "Emozioa eta urduritasuna biak izaten dituzte, baina ikaragarri gustatzen zaie herriko frontoian zuriz jantzita jokatzea", nabarmendu du Arrillagak. Mendaroko Saint-Gerons txokolate dendak emandako elastikoarekin aritzen dira pilotan haurrak.



BERTSO SAIOA, ASTELEHENEAN, 12:30EAN



Uztailaren 26an Santa Ana eguna ospatu ohi da Mendaron eta bertsoak izan ohi dira egun horretako osagai nagusia. Aurten ez da santana eguneko girorik izango, baina bertsoek izango dute beren lekua. Izan ere, bertso saioa antolatu du Udalak egun horretarako (frontoian, 12:30ean). Lau bertsolari gonbidatuko dituzte: Uxue Alberdi, Eli Pagola, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. Plaza ezaguna dute Mendarokoa Alberdik, Lizasok, eta Egañak, bai eta uztailaren 26ko eguna ere, bereziki azkeneko biek. Oraingoan, baina, librean barik Amaia Agirre bertsolari villabonarraren agindutara arituko dira lau bertsolariak. Sarrerak udaletxean eta Lagun Betikoak tabernan eskuratu daitezke, doan.

LAGUN

BETIKOAK

Herriko enparantza, 14 - Mendaro

943 756 222

Pintxo beroak: Tortillak (urdaiazpikoa, txorizoa, hegaluzea)
Solomoa edo hirugiharra (Gazta, aukeran)
Txorizo egosia

Pintxo hotzak: Urdaiazpikoa - Atuna (maionesarekin aukeran)
Razioak - Kokretak - Patata minak - Txorizoa
Oilasko-hegalak - Rabak

Ogitartekoak: Tortillak (urdaiazpikoa, txorizoa eta atuna)
Solomoa (gazta, hirugiharra, piperra)
Hirugiharra

Hanburgesak

GOITI BEHERA

943 603 562

Atxitxin kalea 20, Mutriku

**RAZIOAK,
PLATER KONBINATUAK,
OGITARTEKOAK
HANBURGESAK ...**

Etorri Mutrikura eta bisita gaitzazu!

Zaindu. Babestu. Elkarrekin egingo dugu.



elgoibar
ehbildu

GOKI
erreformak

***Eskerrik asko
zuen erantzunagatik!***

**ELGOIBAR
943 744 223**

**SORALUZE
943 125 741**

**BERGARA
943 765 342**



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUIAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

GYS SPORT **CASA ELGOIBAR**
ASTIGARRAGA

Errosario, 18
943 743 268


**Abuztuan, goizez, zabalik,
9:00etatik 13:00etara**

Mila esker, bezero,
egoera zail honetan
gugan izandako konfiantzagatik!



Errosario, 21, behea
943 744 386

BM Termoplastiko eta Konpositeen
Mekanizazio lanak
Metal Ez-Ferrikoak
bronymec



Mila esker gure lana
aurrera ateratzen
laguntzeagatik.


@BronymecSA



San Bartolome kalea, 29, behea
Elgoibar

ETXERA 943 537 806
ERAMATEKO 635 008 496
ZERBITZUA



- * Baserriko produktu ekologikoak.
- * Garaian garaiko otarrak.
- * Aukera zabala elikagai ekologikoetan.
- * Kosmetika biologikoa.
- * Banaketak: Ermua, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Deba.

www.txillarre.eus
p.ekologikoak@gmail.com



EXPRESS ESKAINTZAK!

**SAMSUNG UE55AU7105KXXC
TELEBISTA**



- Smart TV. ● 4K UHD.
- Alexa eta google laguntzaileak.
- 3 HDMI. ● Pur Color.
- Bluetooth. ● PC-ra konexioa. ● WIFI-a

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte


Covid-19a dela eta, aurten ere ez da sanbartolomerik ospatuko Elgoibarren, baina horren ordez, Elgoibarko Udalak hainbat kultur ekitaldi antolatu ditu uztailerako eta abuzturako, 'Kultura Eguzkitan' programaren barruan. Dagoeneko egin dituzte hainbat ekitaldi, besteak beste, Mauxitxa Band txarangaren emanaldia, Satorra eta gu kontzertua, Udal musika Bandaren saioa, pailazo ikuskizuna, zirkoa... Joan zen barikuan esaterako, 'Korapiloak' ikuskizuna eskaini zuen Rojo Telon konpainiak. Hiru emakume izan ziren protagonistak, eta umorea eta zirkoko akrobaziak erabiliz, hainbat korapilo askatu zituzten. Oporrak iritsiko dira Elgoibarrera, baina kultur programazioak ez du etenik izango.

KULTURA EGUZKITAN



MAQUINAS ESPECIALES

IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxe: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net

MAKINA BEREZIAK

MARKELIÑE: 'CHEF NATURE'. Abuztuaren 9an, Kalegoen plazan, 19:00etan.

Markeliñe antzerki taldeak *Chef Nature* ikuskizuna ekarriko du Elgoibarrera. Chef Nature aire libreko jatetxea da, eta bere baratza propioa dauka. Jatetxe horretara doazen bezeroek, alde batera utzi beharko dituzte euren gailu teknologikoak, hau da, tabletak, sakelako telefonoak edo bestelakoak, naturarekin berriz konektatzeko. Menua magikoa izango da, harrigarria, terapeutikoa eta oso dibertigarria. Eta, prestatzeko, Markeliñek ohikoak diren osagaiak erabiliko ditu: sukaldaritza, erritmoa, keinuak eta material desberdinak nahasteko irudimena. Hori guztia, gatz eta eromen pittin batek apainduko du. Kalegoen plazan izango da, eta euria egiten badu, Maalan.



OLASOKO SAN BARTOLOME PARROKIAKO ATARIRA BISITA GIDATUA. Abuztuaren 23an, 10:00etan.



Elgoibarrek 675 urte beteko ditu aurten, eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak. Egitarau horren barruan kokatu dute honakoa. Abuztuaren 23an, Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariek bisita gidatua egingo dute Olasoko hilerria, garai batean San Bartolome parrokia izan zenaren ataria ezagutzeko. Hamaikagarren mende amaiera aldera Olason zegoen San Bartolome parrokia. Elgoibar fundatu zeneko gutunean ageri dira Olasoko monastegiari buruzko lehen erreferentziak, eta orduan, patronatu eliza zen. Garai hartan erregeak edo partikularrek eraikitzen zituzten elizak, eta beraiek izaten ziren jabeak. Kasu honetan, Gaztelako Erregeak Olasotarrei eman zien eliza hau, nolabait euren patronatu izateko, eta beraiek kobratzen zituzten eliza haren onura guztiak. 1638ra arte izan ziren Olasotarrak San Bartolome eliza haren jabeak. 1776an bota egin zuten eliza hura, kanposantua egiteko eta 1805ean hasi ziren hilerri berrian gorpuak lurperatzen. Gaur egun olasoko hilerrian dagoen arkua zen elizarako sarrera, eta horri buruzko azalpenak emango dituzte bi historialariek.




cristina.garcia.estetika

Cristina Garcia 943 742 950
Estetika eta Terapia Naturakal

Abuztuaren 11ra arte lan egingo dugu!
Gure ordutegia 09:00etatik 18:00etara izango da!
Aurrez aurretiko zitekin egingo dugu lan.

Mila esker bezero guztiei emandako konfiantzarengatik.

Errosario kalea, 19 - Elgoibar - cgestetika@gmail.com



Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO Errosario kalea, 30
943 741 492

HITZORDUA BEHARREZKOA DA

HEPA iragazkiak dituen
AIRE-ARAZGAILUA duen lokala.

Ilea zaintzeko **KERASTASE**
eta **L'OREAL** tratamenduak.

Abuztuko ordutegiak:
www.peluqueriajoseantonio.com




UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA. Abuztuaren 24an, 9:00etan



San Bartolome Eguna ospatzen da abuztuaren 24an, Elgoibarko zaindariaren eguna, hain zuzen ere. Aurten, baina, koronabirusak hala behartuta, ez da ospakizunik egongo. Hala ere, egun horretan ohikoa den txistularien diana iragarri dute. 9:00etan hasiko dute kalejira Kalegoen plazan, eta herriko kaleak girotuko dituzte euren doinuekin.

HORTZMUGA: 'BIDEAREN AMAIERAN'. Abuztuaren 27an, 19:00etan, Kalegoen plazan

Hortzmuga antzerki taldeak aurkeztuko du *Bidearen amaieran* ikuskizuna. Dagoeneko 20 urtetik gora igaro dira Pedrin Divina Pedrea bilakatuta agertu zenetik, bere auzokide guztien aurrean. Dena perfektua zatekeen, edo ia, bere aita Pedro, betiko sindikalista sutua, bertan agertu izan ez balitz. Maleta bat, mila pezeta eta "zu jada ez zara nire semea" nahikoa izan ziren bi pertsonen arteko bizitza-harremana eteteko. Baina patuaren asmoek ez dute ahaidetasunaz ulertzen eta aita-semeak une xeble batek jarriko ditu berriz ere aurrez-aurre. Kaleko komedia emozionala da, ikusle guztientzat. Umorez, enreduz eta sentimenduz betea.



MAPFRE

943 740 582

Faxa: 943 741 707
San Frantzisko, 40, behea
patxiza@mapfre.com

Egoera zailetan ere zure ondoan



**AUTO ETA MOTORREN ASEGURUAK
ETXE-ASEGURUAK
OSASUN-ASEGURUAK
ERRETIRO-ASEGURUAK ETA FAMILIAREN BABESA**

HIL BUKAERAKO FERIA. Abuztuaren 28an, 9:00etatik aurrera

Egun handia izaten da sanbartolomeetan Baserriarren Eguna, eta jende asko etorzen da feriara. Ohikoak dira egun horretan sagardo eta gazta lehiaketa, bertsolari eta trikitilarien doinuak, ganadu feria... Aurten ez da hori guztia izango, baina hala ere, hileroko feriarri eutsiko dio Udalak. Hilabete azken zapatuan egin ohi den feria izango da abuztuko azken zapatuan. Elgoibarko baserrietako produktua jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta eguerditik aurrera, ganadu erakusketa egingo dute Aita Agirre plazan.



DANTZA SOLTEKO TXAPELKETA. Abuztuaren 29an, 19:00etan



Sanbartolomeetako Jubilatuen Eguneko ekintza izaten da hau, eta aurten ere Elgoibarren izango dute zita dantzariak. Haritz dantza taldeak antolatuta, dantza solteko txapelketa jokatu dute hilaren 29an, Kalegoen plazan. Eurria egiten badu, Maalako parkean izango da.



Elgoibar BHI
www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar BHI
Arregitorre 2
943 899 316
013431aa@hezuntza.net



Hurrengoan denok elkarrekin ospatuko dugu.



Meka

Lanbide Eskola

Gozatu ondo merezitako oporraldia eta irailean ikusiko dugu berriro elkar Meka Lanbide Eskolan.



Softlan

Albitxuri Industrialdea, 3i

Tel.: 943 748 105

info@softlan.biz

<https://eu.softlan.eus/>

*Enpresako Gestio Programetan
gaude espezializatuak.*

*SOFTLANekin, zuk erabakitzen duzu,
zuk daukazu zure enpresaren kontrola...*

Egoera zailetan ere, zure ondoan!!!



ELGOIBAR



ELKARREKIN ARGITZEN DUGU

Eskerrik asko, bezero!





1940

Aste honetako erretratu zahar hau Angel Mari Ansola Alberdik utzitakoa da. Ugarruako hiru ahizpa eta beraien biko-tekideak ageri dira argazkian, eta baita alberditarren lagunak ziren Ibarreneako bi ahizpa ere. Lagun talde honek elkarrekin mendi irteerak egiteko ohitura zeukan, eta irteera horietakoren batean ateratako argazkia da hau. Argazkia laga digun Angel Mari, Jose Mariren eta Benitaren semea da.

Goian: Florencio Gabilondo (Andresa Alberdiren senarra), Marcelo Mendizabal (Joseba Alberdiren senarra), Jose Mari Ansola (Benita Alberdiren senarra). **Behean:** Andresa Alberdi (Elgoibarko Ugarrua baserrikoa), Ines Zabaleta (Elgoibarko Ibarrenea baserrikoa), Maria Zabaleta (Ibarrenea baserrikoa), Benita Alberdi (Ugarrua baserriko alaba gazteena) eta Josefa Alberdi (Ugarrua baserriko alaba).

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean



BARREN



943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR

Galdetu
prezioak
eta gustura
erantzungo
dizugu.



Bete ezindako zakua euki:

Asebetetzen zaila denari esan ohi zaio, bai janariaren aldetik, bai konformidadearen aldetik.

Ipar Irlandako eta Gipuzkoako dantzak ikusteko aukera izango da gaur Maalan, Nazioarteko Folklore jaialdiaren barruan

Gaur arratsaldean berriro izango dugu Nazioarteko Folklore Jaialdiaz gozatzeko aukera, Haritz Dantza Taldearen eskutik. Azken urteetan bezala, Maalako parkean egingo dute dantza ikuskizuna, 19:00etatik aurrera.

Pandemiara egokitu behar izan dute aurtengo ikuskizuna, eta ondorioz, ohikoetan baino laburragoa izango da. Aurten beraz, hiru talde beharrean, bi talde izango dira protagonistak: Ipar Irlandako Trim de Velvet eta Elgoibarko Haritz Euskal Dantza Taldea.

Ipar Irlandako taldea da Trim De Velvet, Belfastkoa hain zuzen ere, eta Irlandako dantza tradizional batetik hartu zuen izena taldeak. Kathy O'Connor dantzari eta koreografoak sortu zuen taldea, eta bera da gaur egun ere zuzendaria. Kolore eta musika biziz jantziko dute Maalako parkea.

Haritz dantza taldeak, bestalde, Gipuzkoako dantzak eskainiko ditu. Ezpata dantza, soka dantza, trokeo dantza, fandangoa eta arin-arina. 21 dantzari arituko dira.

Dagoeneko itxi dute ikuskizuna ikustera joateko izena emateko aukera, baina oraindik lekua badagoela jakinarazi dute antolatzaileek, eta esan dute jendea Maalara iritsi ahala joango direla libre dauden lekuak betetzen.



Iban Arantzabal Tokikomeko presidentek zero kilometroko komunikazioa nabarmendu du EAEko Euskararen Legearen 40. urteurrenean

Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak EAEko Euskararen Legearen 40. urteurrenaren harira antolatutako jardunaldian hartu du parte Iban Arantzabal Tokikomeko presidentek, eta gogorarazi du toki komunikabideen sektoreak eta Euskara Normalizatzeko Legeak adin berbera dutela, gaur egun bizirik dirauten lehen toki komunikabideak ere 1980ko hamarkadan sortu zirelako, kasu gehienetan euskara elkarteen eskutik. Etorkizunera begira zero kilometroko komunikazioan jarri du arreta. Azpimarratu du egunero kontsumitzen den informazioaren zati handi bat sare sozialetako multinazionalen esku dagoen garaiotan, ezinbestekoa dela komunikazio alorrean, elikaduran, energian eta beste hainbat sektoretan bezalaxe, burujabetzari eustea, eta komunikazio sistema propio, sendo eta dinamikoa mantentzea. Tokikomen presidentek gogorarazi du alarma egoeran ere azpimarratu zela 'premia biziko' zerbitzuak zirela hedabideak, haien artean euskarazkoak, eta datuek konfirmatu dutela premiazko izaera hori. Arantzabalek emandako datuen arabera, gaur egun, Interneteko datuei dagokienez, toki



komunikabideak dira euskarazko komunikabide ez publikoen kontsumoaren %70, eta kontsumitzeko arrazoi nagusia gertuko informazioa eskaintzea dela nabarmendu zuen.

▶ AITOR ETXEBERRIA

MARGOLARI ETA ESKULTURAGILEA

Otsailean estreinatuta zuten 'Bi begirada' erakusketa Aitor Etxeberria eskulturgileak (Mendaro, 1958) eta Aitor Sarasketa margolariak, (Eibar, 1962) Eibarko Portalean eta erakusketa hark bidea eman zien Donostiako Arteztu eta Kur galerietan lekua egiteko. Bi hilabetez egon dira ikusgai Arteztun Etxeberriaren eta Sarasketaren piezak eta maiatzaren 7tik eta abuztuaren 28ra arte, Kur galerian izango dira.

- AINARA ARGOTIA -



“Ukitu surrealista dute pieza askok eta umetako kontu asko azaldu zaizkit haietan”

◆ Itxialdi betean estreinatuta zenuten 'Bi begirada' erakusketa Eibarren. Ez zen garai onenean tokatu.

Kasualitatea izan zen. Data berdinetan erakustekoak genituen gure lanak Eibarren: Nik, Portalean, eta Aitorrek, ondoko espazio batean, eta elkar ezagutzen genuenez eta harreman ona genuenez gure artean, erabaki genuen bion lanak batera eta elkarren ondoan jarrita erakustea, elkarren osagarri direlako piezak. Garai hartan herrira mugatuta geunden eta ezin izan zuten jende askok etorri ikustera, baina zorionez, Donostiako bi galerista etorri ziren eta Bilboko beste batek bideo baten bidez izan zuten gure berri, eta erakusketa hartan beste hirutarako aukera zabaldu zitzaigun. Baina, bestela, pena izan zen, bai, ingurukoek ezin izan zutelako etorri azkeneko asteburura arte.

◆ Bi artista, bi diziplina. Hari bat ba al da biak lotzeko?

Elkarrekin erakutsi dugu, baina ez dago gai edo hari jakin bat gure lanak batzen dituenen. 2019an deitu zidaten niri Portaleatik garai hartan sare sozialetan partekatzen ari nintzen eskulturen tipokoak erakutsi nahi zituztela esanez. Ez dira eskultura tradizionaleko piezak nire hauek. Egurra, brontzea, aluminioa, alabastroa eta hondakinak erabiliak pieza batzuk sortu ditut, pieza zentzuga-beak edo absurdoak askotan. Material pobreak batu eta haiekin jolasten naiz. Arte pobrea (povera) esaten zaio egin dudan honi, 60ko hamarkadan Italian sortu zen mugimendu artistikoa da. Esan dezaket ukitu surrealista dutela pieza askok eta umetako kontu asko azaltzen zaizkidala haietan.

◆ Nola bilatzen da absurdoa?

Materialak jaso eta estudioan denbora bat pasatzen dutenean hasten naiz elkarrekin zerikusirik ez duten material horiekin absurdoaren ideia lantzen. Ez dira beraz zirriborro edo proiektu baten gainean erakitako piezak. Hitzekin azaltzea ez da erraza, eta badakit jendeak esanahi bat bilatu nahi izaten diola gauza guztiei, baina niretzat prozesua da interesgarria. Nik, jakina, eman diezaioket esanahi bat nire obrari, baina hori ipuin bat kontatzea da. Artistaren asmoa jasota dago erakusketan eta nik nahiago dut ikustera datorrenak berak bilatzea esanahia, horren beharra baldin badu behintzat.

◆ Baina gustatzen al zaizu jasotzea zure lanek zer iradokitzen duten?


Bai, jakina. Normalean ez naiz galerian egoten, baina iristen zaizkit mezuak eta hori izaten da niretzat aberasgarriena. Erakusketa baten inaugurazioan ezagutu nuen zinemagile batek idatzi zidan aurreko batean eta esaten zidan berari harrigarria egiten zitzaioela ez jakitea aurrez zer sortu nahi nuen. Galeristak azaldu zion erakusketa honen izatea eta idatzi zidan esanez nahiko lituzkeela nire margolanak ezagutu. Izugarri poztu nintzen.

◆ Eibarren erakutsi zenutenean baino libreago gabiltza orain. Zein harrera izaten ari zarete Kur galerian?

Pozik gaude. Galeristak esaten digu jendea dabilela, eta orain hurrengo Bilbon ere erakusteko aukera izango dugunez, gustura gaude. Egunik ez daukagu zehaztuta, baina Bilbora ere iritsiko da *Bi begirada*.

Koldo Lizarralde gogoan izango dute estreinakoz Idotorben amaituko den Etxaniz memorialean

Gure Bide elkarteak antolatzen duen Etxaniz memorialeko txirrindulari lasterketaren 74. ekitaldia bertan behera gelditu zen iaz pandemia dela-eta. Aurten berriro antolatuko dute, eta berrikuntzekin itzuliko dira. Ohi moduan, San Bartolome Bezpera Egunean, abuztuaren 23an, jokatu da, 9:00etatik aurrera. Irteera eman aurretik, 2019ko irailean hil zen Koldo Lizarralderi omenaldi txiki bat egingo diote Gure Bidekoek Kalegoen plazan. Elkarteko bazkidea zen Lizarralde, eta Etxaniz Memorialeko lasterketako antolakuntza taldekoa zen. Lasterketaren alde lan handia egin zuela adierazi zion BARRENI Manu Condek, Lizarralderen heriotzaren berri izan ostean, antolakuntza lanetan makina bat ordu eman baitzituzten biek elkarrekin. "Etxaniz memorialeko ibilbidean aldaketaren bat egin behar genuela esan eta ez zuen ibilbide osoa erreparatu arteko onik izaten. Dena ondo zegoela ziurtatu behar zuen. Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioa ere makina bat ostera egin genituen elkarrekin, eta paper artean zenbat ordu ez ote ditu pasa! Gizon jakintsua zen".



Gazteak prestatu

Etxanizen oroimenezko txirrindulari lasterketak 23 urtez azpiko txirrindulari afizionatu onenak batzen ditu, eta Lehendakari Txapelketarako zein Udako Kriteriumerakoa proba puntuagarria izango da. Txirrindulariek 131,6 kilometroko ibilbide gorabeheratsua osatu beharko dute, eta hiru bider igo beharko dute Azkarate gaina (410 metro), azken igoera helmugara ailegatzeko 12 kilometro baino gutxiagoren faltan. Galbahea pasatzen duten txirrindulari gogorrenak lehiatuko dira 3,8 kilometroko azken aldapa gogorrean, Idotorbe gainean egongo baita helmuga estreinakoz. Antolatzailiek argitu dutenez, jende pilaketak sahiesteko atera dute helmuga herrigunetik, Pedro Migel Urruzuno kalean egon izan baita helmuga azken urteetan. Helmugara ez gerturatzeko eskatu dute antolatzailiek, jende pilaketak saihestea dagokielako.

Ansorregi eta Zelai III.a gailendu dira Binakako Aizkolari Txapelketaren estreinako edizioan



Bide berri bat zabaldu zuten emakumezkoen aizkora joan den uztailaren 16an Azpeitian jokatu zuten Sherpa.ai Binakako Aizkolari Txapelketa Nagusiaren lehen edizioan, eta Karmele Gisasola *Zelai III* eta Uxue Ansorregiren izenak dira palmaresean agertuko diren aurrenak. Binaka ez da inoiz halako txapelketarik izan, kirol hau modernizatzea, profesionalizatzea eta garai berrietara egokitzeko ahaleginean, Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa antolatu baitu Euskal Herriko Aizkolaritza Elkarteak. Emakumezkoetan hiru bikote aritu ziren lehia bizian, aurrendari direla jakitun. Karmele Gisasola *Zelai III*a mallabiarrak eta Uxue Ansorregi mendaroarrak osatutako bikoteak Beatriz Tanco-Maika Ariztegi eta Garazi Arruti-Julia Martinez izan zituzten aurkari. Bi kana-erdiko eta 36 ontzako bi moztu behar zituzten eta Gisasola eta Ansorregi izan ziren lanak amaitzen azkarrenak (12' 17"). Beatriz Tanco eta Maika Ariztegi sailkatu ziren bigarren postuan (13' 05") eta Garazi Arruti-Julia Martinez bikoa sailkatu zen hirugarren postuan (18' 06").

Haundik Osasunaren eta Realaren aurka jokatu du Elgoibar Herria Futbol Txapelketan

C lub Deportibo Elgoibarrek Elgoibar Herria Futbol Txapelketa antolatu du abuztuaren 28rako. Hiruko txapelketa formatuan jokatu dute txapelketa, hau da, hiru taldek jokatu dute elkarren aurka, baina ez dira 90 minutuko partidak izango, 45 minutukoak baizik. Osasunak eta Realak ohorezko jubenil mailako taldeak ekarriko dituzte Mintxetara. 17:00etatik aurrera Haundik Osasunaren aurka jokatu du. 18:00etan Realak eta Osasunak jokatu dute elkarren aurka, eta 19:00etan Realak izango du aurkari etxeko taldeak.




Alcortak eta Gaurvek Sanlok antolatutako txapelketan hasiko dute denboraldia

Sanlok eskubaloi txapelketa antolatu du abuztuaren 28rako. Senior emakumezkoen eta gizonezkoen taldeak lehiatuko dira Olaizaga kiroldegian, 16:00etan hasiko den eskubaloi jaialdian. Hasteko, Sanloko Alcorta Forging Group taldeak Hendaiaren aurka jokatu du. Ondoren, Hiruko Txapelketa jokatu dute senior emakumezkoen hiru taldek: Gaurve Elgoibar etxeko taldeak, Urdulizek eta San Adrianek. Ohorezko Zilarrezko mailako taldeak dira Gaurve eta Errotaberri eta Euskal ligan lehiatu da Urduliz. Sanlotik jakinarazi dutenez, oraindik ez dakite txapelketa publikoarekin jokatu ahal izango den ala ez, pandemiaren bilakaeraren arabera, eta Udal Kirol Patronatuaren erabakiaren zain daude.

Pilota partida profesionalak, Ikastolako frontoian

Master Caixabank esku pilota txapelketako bi jardunaldi hartuko ditu Elgoibarrek abuztuaren 23an eta 24an. Abuztuaren 23ko pilota jaialdia 22:00etan hasiko da. Hau izango da estelarra: Olaizola II - Zabaleta / Etxeberria - Albisu. Zuzenean emango du Euskal Telebistak. Abuztuaren 24ko jardunaldia, berriz, 18:00etan hasiko da. Honako izango da partida nagusia: Ezkurdia - Imaz / Peña II - Rezusta.



Jon Aranoa
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneztik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Reapaindegil zerbitzua daukagu.
Deitu ardua hartzen.

SURYA
BELAR-DENDA

Mila esker gure lana aurrera ateratzen laguntzeagatik.

943 742 534 630 878 054

surya-belardenda@hotmail.com
San Frantzisko, 23 - Elgoibar

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteburuetan lan egiteko prest. ☎ 641 821 288

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.

☎ 643 071 900

Edozein lanetarako prest nago. Orduka, etxeko langile moduan... Erabateko malgutasuna daukat ordutegian.

☎ 631 593 925

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, etxeetan, portaletan, lokaletan, tabernetan... Esperientzia daukat. ☎ 602 490 595

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Titulua eta esperientzia ditut. Etxeetan garbiketa lanak egiteko ere prest nago.

☎ 666 197 831

Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo asteburuetan.

☎ 641 821 288

Adinekoak zaintzeko eta gabiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut.

☎ 688 735 551

Mutila lanerako prest. Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako, zerbitzari lanetarako, banatzaile... edozertarako prest.

☎ 626 407 923

Eskaintzak

Adineko pertsona bat zaintzeko zaintzaile bila gabiltza. Ezinbestekoa titulazioa eta paper guztiak legez izatea. Garrantzitsua da txakurrak gustuko izatea.

☎ 675 705 139 / 629 184 010

ETXEBIZITZAK.....

Alokairua

Pisua hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa, berehala sartzeko prest.

☎ 657 140 505

BARREN sare sozialetan

facebook.com/barrenaldizkaria twitter.com/barreneus instagram.com/barrenaldizkaria

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

administradores
 Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
 Euzko Erregeko Administrazioaren Kontsekoa

ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxejabe baten senide batek eman dezake iritzia komunitateko Obra Batzordearen bileran eta egin dezake adostutako akordioen kontra, etxejabea bera batzarrean dagoela?

Nire ustez, etxejabea ez den batek ezin du komunitateko organoetan parte hartu. Zentzu horretan, jabeakideen batzarra eta presidentea dira Jabetza Horizontalaren Legearen arabera ezinbestean egon behar diren bi organoak, komunitate bat behar bezala administrazioa eta kudeatzeko. Gainerako karguak -idazkaria, administrazioa, presidenteordea, diruzaina, zuzendaritza-batzordea, Obra Batzordea...-etxe jabeek bete behar dituzte. Administrazioa, hori bai, izan daiteke komunitate kanpoko profesional bat.

Nolanahi ere, komunitatean legez ezinbestekoak ez diren beste kargu horiek egoteak ez ditu presidentea eta jabeakideen batzarra dituzten ardurez gabetzen. Batzarrerara joan ezin duen etxe jabeak delegatu dezake bere iritzia beste norbaitengan, baina batzarrerara bera doan kasuetan ezin du beste bat eraman; ezin dute biek eman iritzia, alegia.

AHOLKUA: batzarrerara joan ezin duen etxejabeak beste batzarrera delegatu dezake bere iritzia, baina ardurak eta karguak ezin dira delegatu. Batzorde eta erabaki organoetan etxejabea bakarrik egon ahal da.

ASESORIA GO/R
AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
 San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **pre-xioxa!** Ondo-ondo pasa zure eguna! Muxu handi bat, etxe-koen partez.



Ongi-etorri, **Ametz Mendi-kute!** Muxu handi bat etxe-koen, eta bereziki, Angeren partez.



Zorionak, **June,** abuztuaren 4an 6 urte beteko dituzulako. Ondo pasa zure egunean! Mila muxu, familiakoen partez.



Zorionak, **Sara,** atzo 6 urte bete zenituelako. Patxo pila bat familiako guztion partez. Maite zaitugu.



Zorionak, **Lier,** abuztuaren 13an 5 urte beteko dituzulako! Muxu handi bat etxe-koen, eta bereziki Ane, Jare, Naia, Aratz eta anaia Ibairen partez.



Zorionak, **Narrea,** uztailearen 30ean 4 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat familiakoen, eta bereziki, Gorka eta Juneren partez.




Zorionak, **Ai-martxo!** Asko maite zaitugu! Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Julen,** abuztuaren 1ean urteko bat beteko duzulako. Asko maite zaitugu. Muxu bat, familiakoen partez.



Zorionak, **Ibon Iriondo!** Uztailearen 30ean 3 urte! Familiakoen eta bereziki, Nora eta Aimarren partez. Muxu handi bat.



Zorionak, **Irati** eta **Maddi,** gure santanarak! Datorren astelehenean 18 eta 10 urte! Patxo potolo bana, familiakoen partez.



Zorionak, **Paule** eta **Libe,** hilaren 17an eta gaur, 4 urte potolo bete dituzelako. Muxu handi bana familiakoen eta lagunen partetik.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako)
baino lehen ekarri behar dira
BARRENEko bulegora, edo
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

ARAMBURU
BITXIDENDA
Eskerrik asko, bezero,
pandemian gudan
izandako kofiantzagatik.
San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

KARAKATE
Jatetxea
Oporrak
abuztuaren 7tik 22ra
Eskerrik asko, bezero!
Olasope, 1 - Elgoibar
karakatejatetxea@hotmail.com

Leire
Ikrapaldegia
peluqueria
Pedro Miguel Urruzano kalea, 10
943 256 105
Ile eta buru-azalerako
tratamendu organikoak.
Abuztuaren egun hauetan zabalik:
✦ Abuztuaren 3tik 6ra, goizez
✦ Abuztuaren 27tik aurrera betiko ordutegian.
Eskerrik asko, bezero!

AHOLKULARITZA
BIKAIN
ASESORIA
Tel.: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@bikainasesoria.com
Zerga-aholkularitza
Lan-aholkularitza
Kontabilitate aholkularitza
Antonio Arrillaga, 4 behea - 20780 ELGOIBAR
Eskerrik asko, bezero!



KIROLA ABUZTUAN



24 ZAPATUA

19:00 Azken zapatuko feria. Kalebarren plazan Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai, eta eguerditik aurrera ganadu erakusketa egingo dute Aita Agirre plazan.

25 DOMEKA

11:30 Meza berezia: Santiago apostoluaren festaburua ospatzeko meza. San Bartolome parrokian.

23 ASTELEHENA

9:00 Etxaniz Memoriala, elite mailako txirrindularientzat. Kalegoen plazatik abiatuko da, eta Idotorben izango du helmuga.

22:00 Mastercup Caixabank pilota profesionaleko txapelketa, Ikastolako frontoian. Estelarra: Olaizola II - Zabaleta / Etxeberria - Albisu.

24 MARTITZENA

San Bartolome Eguna

18:00 Mastercup Caixabank pilota profesionaleko txapelketa, Ikastolako frontoian. Estelarra: Ezkurdia - Imaz / Peña II - Rezusta.

28 ZAPATUA

16:00 Eskubalo txapelketa, Olaizaga kiroldegian.

Alcorta-Hendaia (senior mutilak)

Gaurve-Errotabarri-San Adrian (Senior neskek)

17:00 'Elgoibarko Hiria' futbol txapelketa, C.D. Elgoibarrek antolatuta.

17:00 Haundi-Osasuna (OJM)

18:00 Real Sociedad - Osasuna (OJM)

19:00 Haundi - Real Sociedad (OJM)



AGURTZANE
c.b.

ileapaindegia

Fotodepilazioa egiten dugu

MILA ESKER, BEZERO!

ABUZTUAN, ERUGARREN ASTEAN IZAN EZK, GORRIKATZAN ZUZEN IZANGO GARA!

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
- MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



RPS233/13
Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&mas

Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 961 628
www.fisio-mas.com

RPS 67/12

RPS 183/12

Uzuri

optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando Urizar Barandiaran

R.P.S.: 32/17

Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoa
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Ballen kalea, 9, 1, ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

leku eder

hartz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12

ainhoa

fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745



Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

KULTURA EGUZKITAN



UZTAILA

23 BARIKUA

19:00 Nazioarteko Folklore jaialdia. Haritz Dantza taldeak antolatuta, Maalako parkean.

ABUZTUA

6 BARIKUA

19:00 Antzerkia: Markeliñe taldeak 'Chef nature' antzezlanaren aurkeztuko du. Kalegoen plazan. (Euria bada, Maalan.)

23 ASTELEHENA

10:00-12:00 Olasoko antzinako San Bartolome parrokiako atarira bisita gidatua, Pello Arrieta eta Javier Elorzarekin.

24 MARTITZENA (San Bartolome Eguna)

9:00 Udal Txistulari taldearen diana.

27 BARIKUA

19:00 Antzerkia: Hortzmuga taldeak, 'Bidearen amaieran' ikuskizuna aurkeztuko du. Kalegoen plazan (Euria bada, Maalan).

28 ZAPATUA

19:00 Azken zapatuko feria. Kalebarren plazan Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai, eta eguerditik aurrera ganadu erakusketa egingo dute Aita Agirre plazan.

29 DOMEKA

19:00 Dantza solteko txapelketa. Kalegoen plazan. (Euria bada, Maalan).

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK:

Egunez (*): 09:00-22:00
 Iluntzean (*): 20:00-22:00
 Larunbatak (*): 9:00-14:00

GUARDIAK 09:00 - 22:00

UZTAILA

23 Barikua	*YUDEGO	*YUDEGO	
24 zapatua	*ORUESAGASTI	-----	* YUDEGO
25 Domeka	*ORUESAGASTI		
26 Astelehena	*BARRENETXEA	*BARRENETXEA	
27 Martitzena	*IBAÑEZ	*BARRENETXEA	
28 Eguaztena	*GARITAONANDIA	*GARITAONANDIA	
29 Eguena	*ARRIOLA	*ARRIOLA	
30 Barikua	*FERNANDEZ	*ARRIOLA	
31 Zapatua	*BARRENETXEA	*BARRENETXEA	

ABUZTUA

1 Domeka	*YUDEGO	*YUDEGO	
2 Astelehena	*ORUESAGASTI	*YUDEGO	
3 Martitzena	*ARRIOLA	*ARRIOLA	
4 Eguaztena	*IBAÑEZ	*ARRIOLA	
5 Eguena	*YUDEGO	*YUDEGO	
6 Barikua	*ARRIOLA	*ARRIOLA	
7 Zapatua	*FERNANDEZ	-----	*YUDEGO
8 Domeka	*FERNANDEZ	-----	
9 Astelehena	*YUDEGO	*YUDEGO	
10 Martitzena	*ORUESAGASTI	*YUDEGO	
11 Eguaztena	*ARRIOLA	*ARRIOLA	
12 Eguena	*IBAÑEZ	*ARRIOLA	
13 Barikua	*YUDEGO	*YUDEGO	
14 Zapatua	*ARRIOLA	*ARRIOLA	
15 Domeka	*ARRIOLA	*ARRIOLA	
16 Astelehena	*FERNANDEZ	*GARITAONANDIA	
17 Martitzena	*GARITAONANDIA	*GARITAONANDIA	
18 Eguaztena	*ORUESAGASTI	*BARRENETXEA	
19 Eguena	*BARRENETXEA	*BARRENETXEA	
20 Barikua	*IBAÑEZ	*GARITAONANDIA	
21 Zapatua	*GARITAONANDIA	*GARITAONANDIA	
22 Domeka	*GARITAONANDIA	*GARITAONANDIA	
23 Astelehena	*BARRENETXEA	*BARRENETXEA	
24 Martitzena	*FERNANDEZ	-----	
25 Eguaztena	*GARITAONANDIA	*GARITAONANDIA	
26 Eguena	*ORUESAGASTI	*BARRENETXEA	
27 Barikua	*BARRENETXEA	*BARRENETXEA	
28 Zapatua	*IBAÑEZ	-----	*BARRENETXEA
29 Domeka	*IBAÑEZ	-----	
30 Astelehena	*GARITAONANDIA	*GARITAONANDIA	
31 Martitzena	*BARRENETXEA	*BARRENETXEA	

IRAILA

1 Eguaztena	*FERNANDEZ	*GARITAONANDIA
2 Eguena	*YUDEGO	*YUDEGO
3 Barikua	*ORUESAGASTI	*GARITAONANDIA

* Fernandez: Herriko Enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - 943 756 142
 * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) - 943 751 638
 * Oruesagasti: Kalebarren, 9 - (Soraluze) - 943 751 384
 * Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
 Arantzazu Izpiazua, Ibarburutze, 7 (Eibar) - 943 201 912



Iñigo Otaño

Udako ilunabar epel horietako bat zen. Eguzki gorriaren izpi nekatuak itzal mugikorak sortzen hasi ziren herri hartako horma erdi erorietan. Herri malapartatu hura esploratzea baino gauza erakargarriagorik ez zegoen, une hartan, 12 urtetako bi nerabe haientzat.

Bizikleta eta bainuzko egun baten ostean, urtegiaren bazterrean afaltzea pentsatu zuten gurasoek, egunari merezi zion amaiera emateko. Urtegiaren alboan, gurasoak afaria prestatzen ari ziren lekutik kilometro eskasera zegoen aspalditik inor bizi ez zen herri hura. Bertara hurbiltzen ziren heinean, gurasoen algarak desagertzen joan ziren mutikoen belarrietatik. Burdin hesi zaharkitu batek inguratzen zuen herria eta 'Ez sartu' jartzen zuen nonahi: sartzeko gonbite ezin hobea.

Eliza inguruan biltzen ziren erdi eroritako eraikin apurrak. Bazegoen bat, oraindik tinko eta arkupe ederrez osaturik zegoena, eskola zirudien. Arkupeetan sartu eta freskotasanak mutikoen aurpegia igurtzi zuen. Hormetako kolore txuriak argitasun berezia ematen zion inguru hari. Atzera begiratu eta ilun ikusten zuten orain kanpoan gelditzen zen guztia, eguzkia ezkutatu zen seinale. Elkarri begiratu zioten, baina ez zuten ezer esan.

Mutikoetako bat eskolaren sarrera zen egurrezko ate handira hurbildu zen irekitzeko asmotan, baina itxita zegoen. "Saiatuko gara bion artean irekitzen?" esan zion beste mutikoari. Besteak; ordea, ez zion erantzun, gora begira zegoen, zurbil, erreakzionatu ezinda. Berak ere gora begiratu zuen



Iosu Juaristi

"Burdin hesi zaharkitu batek inguratzen zuen herria eta 'Ez sartu' jartzen zuen nonahi: sartzeko gonbite ezin hobea"

orduan. Arkupeen sabaia ispiluz josia zegoen eta han, ispiluen erdian, hiru mutiko ageri ziren begira: beraien alboan, ezagutzen ez zuten hirugarren mutiko bat zegoen. Deabruak berak ja-

rraituko balie bezala egin zuten ihes handik, atzera begiratu ere egin gabe, barbakoaren usain goxoak eta gurasoen algarek haien bihotzak zertxobait baretu zituzten arte.

G R E M I O N E N GIDA

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 behe - Elgoibar

- ⊕ Proiektuak eta erreformak
- ⊕ Sukaldeak
- ⊕ Gremioen koordinazioa
- ⊕ Obren zerbitzu integrala

**943 744 019
605 713 168**

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90



ARROZTEGIAK

Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albituri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



MAR
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behe
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



iraolagoitia

arroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

Arroztegia · Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

BIENA.S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ITURGINTZA

ONGI iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

SANTANA



Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905

santanaiturgintza@gmail.com

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA

San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

MIGUEL AZPIRI
iturgina

Iturgintzako eta berokuntzako
ordezkapenen konponketak.

635 133 841

**Berehalako zerbitzua
ematen da!**





BELAUSTEGI BASERRIA

— Jatetxea —

*Denborak atsedena hartu eta...
zentzumenak esnatu egiten
diren lekua*

